

ELKARRIZKETA: JOSU TXAPARTEGI • ESPERIENTZIA: BEGIRATU
ETA IRUDIKATU • EKARPENA: BUSTURIALDEKO ESKOLA TXIKIAK •
GALDEIDAZUE: JOSEBA ETXEBESTE • JOSUNE BEREZIARTU

hh
hik hasi

111

4 EURO • 2006KO URRIA EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA



GAIA

**Etxeko irakaskuntza
eskolara joan gabe**



LARREA

bizileku


HARITZA

bizileku



Larrean eta haritzetan
bizi diren izaki bizidunei
buruz den-dena jakiteko:
ugaztunak, landareak, txoriak,
intsektuak, onddoak...
Mundu zoragarri bat zure esku.

Liburuen barruan,
horman ezartzeko
poster polit bat!




aurkibidea



8
gaia

ETXEKO IRAKASKUNTZA

Iraila iristearekin batera, haur gehienak hasi dira eskolan, baina ez denak. Batzuek etxean ikasiko dute, gurasoek irakatsiko diete. Eskolara joatea baino hobea iruditzen zaielako egiten dute aukeraketa hori. Euskal Herrian ez dago oso hedatua *homeschooling*-a, eta legea ere ez da berdina leku guztietan.



18
elkarrizketa

JOSU TXAPARTEGI "TXAPAS"

Beste hainbaten moduan, Zarauzko ikastolako "Txapas" maisua aurten erretiratu da. 32 urtetan irakaskuntzan aritu ostean, pozik utzi die errelebia irakasle berriei. Urte horietako errebasoa egin dugu.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

ETXEKO IRAKASKUNTZA

18 elkarrizketa

JOSU TXAPARTEGI "TXAPAS"

26 esperientzia

Energia Bizi erakusketa

28 esperientzia

Begiratu eta irudikatu

Artistak eta ikasleak batu dituen erakusketa

32 ekarpena

Busturialdeko Eskola Txikiak

34 galdeidazue

Joseba Etxebeste

37 berriak

41 ...goza nazazu gehiago!

Denon zeregina

Erramun Osa

42 Atzeko atetik

Josune Bereziartu

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 . Fax: 943/ 372 154; www.hikhasi.com;

Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Erredakzio burua: Ainhoa Azpiroz. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Miren Guilló. Erredakzio batzordea: Mikel Estonba, Mari Karmen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Juanjo Otaño, Matilde Sainz eta Pruden Sudupe. Administrazioa: Arantxa Goiburu. Diseinua: TRAM•Graffk. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANtza S.A.L. Azaleko irudia: Argazki Press. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2006-IX-25). Kopurua: 3.500 ale.

hik hasiko artikuluez edonon eta edonoiz balia zaitzake. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

Harpidetza orria



hik hasi_k
zure parte-hartzea
ezinbestekoa du,
harpide zaitetz!
50 euro urtean

Prezio horren barruan
10 aldizkari, ale monografikoak
eta Euskal Herriko baliabide
pedagogikoen gida.
Horrez gain, prezio bereziak
Udako Topaketetan eta
argitararaten ditugun
gainontzeko materialetan

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena

1. Deitura

2. Deitura

Telefonoa

Helbidea

Posta Kodea

Herria

Herrialdea

Lantokia

Lantokiaren herria

IFZ-NAN

Posta elektronikoa

<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

hik hasi Euskal heziketarako aldizkaria
Errekalde hiribidea, 59 Aguila eraikina, 1. solairua
20018 DONOSTIA. GIPUZKOA
Tel: 943/37 14 08 Faxe: 943/37 21 54

HARPIDETZA SARIAK
(BEZ barne) 50 euro

editoriala

urria

Datorren otsailean hizkuntz ereduen legea ezta- baidatuko omen da Gasteizko Legebiltzarrean



“Nire alabak 8 urte daramatza eskolan eta ez du euskaraz hitz egiten oraindik” (Luz Alba etorkin kolonbiarra).

“Euskalduntze prozesuan eskolak egiten du egin behar duena, orain, gizarteari eskatu behar zaio berea egitea” (EAEko politikoa).

Hizkuntz ereduak ezarri zirenean, edozein zelarik ere aukeratutako eredu (A, B edo D), 16 urterekin ikasle guztiak euskara ezagutuko zutela eta erraztasunez hitz egiteko gai izango zirela esan zen. Horrela jaso zen legean. Eta legeak ez du bere helburua bete.

Porrota nabarmena izan da. EAEko aurreko Hezkuntza Sailak egindako ebaluazioaren arabera, Dereduan ikasi dutenen artean 2/3ak soilik gainditu du hizkuntzaren ezagutza neurtzeko Europar homologatuta dagoen frogara. Hau da, ALTE frogara.

Zer egin horren aurrean? Euskara ezagutzeko helburua betetzen ez denez, neurri zehatz eta sakonak hartu beharko liritekeela deritzogu.

Herritar horien eskubideak ukatzen eta urratzen ari dira. Ikasle guztiak bermatzen zaie gaztelania ongi ezagutzea. Zergatik ez, ordea, euskara?

Duela urte batzuk Urola-Kostan egindako ikerketa baten arabera, etxean euskaraz hitz eginez eta eskolan euskaraz (D eredu) ikasiz, 12 urterekin bi hizkuntzak (gaztelania eta euskara) maila beretsuan aurkitzen omen ziren erabilerari dagokionez. Eta 12 urtetik aurrera gaztelaniaren alde igotzen zen.

Esan dugu, bi hizkuntzen ezagutza bermatu nahi bada, neurri sakonak hartu behar dira. Zer neurrimota baina?

1.- Legedi esparruan, euskara gaztelaniaren parean jarri. Gaur egun, Espainiako Konstituzioak gaztelania jakitera derrigortzen gaitu denok. EAEko estatutuak, berriz, euskara hizkuntz ofiziala izendatzen badu ere, ez du derrigorrez ezagutzera behartzen. Euskara eskubidezko, aukerazko hizkuntza baino ez da.

2.- Eskola hizkuntza euskara izatea. Katalunian katalana eta Gali-

zan galiziera diren moduan.

3.- Gaztelaniaren nagusitasuna hain handia izanik (prentsa, kaleko hizkuntza nagusia, lan harremanak, instituzioak, merkaturia, telebista, internet...), **esparru guztietan eragingo duen herri plangintza gauzatzea** ezinbestekoa da (familia-eskola-kalea-lana-komunikabideak).

4.- Irakasle berri guztiak bi hizkuntza ofizialetan ongi trebatuak egotea. Hurrengo hamar urteetan EAEko irakasleen erdia erretiratu egingo da, eta berri ugari sartu.

Goian aipatu neurriekin ez da ziurtatuko, seguruenik, bi hizkuntzen oreka. Baina neurri horiek gabe ez dela lortuko ziur gaude.

Itxurakeriarik ez! Har ditzagun behar-beharrezko diren neurriak. Babes ditzagun herritarren hizkuntz eskubideak. Izan gaitzen behingoz ausartak eta koherenteak.

kronika

Patxi Larrainzar Iruñeko ikastetxean 86 haurrek egin zuten aurrematrikula D eredu an, baina 75entzako lekua besterik ez dago. Haur horien gurasoek seme-alabak auzoan ikasteko eskubidea dutela aldarrikatu dute, baina badirudi Nafarroako Gobernuak D eredu an laugarren lerroa zabaltzeko ideia baztertu duela. Oztopoak oztupo, 2006-07 ikasturtea hasi da eta hamaika haur horiek Arrotxapeako ikastetxean hasi dute ikasturtea. Gurasoen Elkarteko ezohiko bilera batean hala erabakita, elkartearen gelara eraman dituzte haurrak, zuzendariaren oniritziarekin. Orain gurasoak plangintza berri baten zain daude. Hezkuntza Saileko kideekin bilera egiten saiatu badira ere, ez dute inolako erantzunik jaso. Beraz, ez dakite zer pasako den haur talde honekin, baina espero dute ikasturtea bertan amaitu ahal izatea.



D ereduak gora egin du Euskal Herri osoan

Ipar Euskal Herriko irakaskuntzan euskararen presentzia haziz doa. Gaur egun Iparraldean dauden 145 ikastetxetatik 55etan eskaintzen dituzte ikasketak euskaraz. Horietatik 25 dira Seaskaren ikastolak, eta horietan ikasketak osorik euskaraz egiten dira. Guztira 2.263 ikasle ikasiko dute aurten ikastoletan, pasa den urtean baino 90 gehiagok.

Seaskak Baigorri ireki berri duen ama eskola 12 hurrekin hasi da martxan. Herriko gurasoen ekimenez eta Basaizea Baigorriko kultur elkartearen laguntzaz abiatu da. Dena den, Hezkuntza Ministerioarekin hitzarmena sinatu zenetik lehen aldia izango da Seaskak bertako irakaslearen eta beste irakasle postu baten kostua beregain hartzen dituela.

Bestalde, eskola publikoan sei ikas-

gela elebidun berri ireki dira; Arbonan, Bidarten, Getarian, Amorotzan, Baionako Malygarin eta Miarritzeko Thermes Salinesen.

Euskal Hazia elkarte kristauak bost postu erdi elebidun zabaldu ditu, frantses hutsekoak kenduz. Euskarazko irakaskuntzaren presentzia hazi da, beraz.

Abuztuaren 30ean ekin zioten Zuberoa, Lapurdi eta Baxenafarroako ikasleek ikasturteari. Nafarroakoek, ostera, irailaren 7an eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabakoek hilaren 8an.

Nafarroan guztira 87.178 ikasle hasi dute ikasturtea, % 24,8k D eredu an. G eredu an, berriz, % 53,4 ikasle daude eta A eredu an % 21,6. Campoy kontseilariak D ereduaren igoera goranzkoa dela esan du, baina igoera nahiko txikia da.

Bien bitartean, Tontxu Camposek Debako Luzaro ikastetxean eman zion ikasturteari hasiera. Aurten, "eskola inklusiboa" indartzeko berrikuntza programak abian jarriko dituela aipatu du, herri txiki eta handietako ikasle guztiei arreta ona eskaini eta bermatzeko asmoz.

Ereduei dagokienez, ikasleen % 44,2 arituko da D eredu an, iaz baino % 2 gehiago. B eredu an % 23,3, aurreko urtearekin alderatuz % 1 baino gutxiago igo da. Eta azkenik, A eredu an % 22,4k ikasiko dute.

Estatu handietan ezin den mila saio sozial proba genezake guk, askatasunean, justizian, lanaren organizazioan, begiratasun poliziakoan, garraioetan, heredentzi eta jabego kapituluetan, urbanismoan, edozertan. Horixe bakarrik nahi dugu. Geure eredia, geuretzat.

Joxe Azurmendi



Estatu frantsesa irakasle kopurua jaisteko egiten ari den politika salatzeko mobilizatu dira irakasleak

Hezkuntza publikoko hainbat sindikatuk, UNSA/Hezkuntza, FERC/CGT, FSU eta SGEN/CFDTk, greba antolatu zuten baliabideen murrizketa eta gelen itxiera salatzeko. Baionako Herriko etxearen aurrean elkartu ziren, presioa egin eta baliabide gehiago lortzeko asmoz.

Urtero, ikasturte hasieran, ohikoa den errealitate honen aurkako protestak izan ohi dira. Eta, urteroko erabakien ondorioak pilatzen doaz. Estatuak 8.700 lanpostu kentzea aurreikusia du. Zentroetan ikasleak gora egiten dute, baina irakasle postu gutxiago daude. Ikasgelak beraz, beteta daude.

Horrez gain, tokian tokiko errealita-

teak ez direla kontuan hartzen aipatu dute, eta landa guneetan are agerikoagoa dela baliabide falta. Herri hizkuntzak ez direla aintzat hartzen diote, eta ondorioz, ez dagoela elebitasuna lantzeko baliabide egokirik. Ahalmen urriko haurren kasuan ere, baliabide askorik ez dela ematen aipatu dute.

Pirinio Atlantikoetako Departamenduan ikasturte honetan pasa denean baino 300 haur gehiago matrikulatu dira, eta aurreko ikasturtean baino sei irakasle gutxiago daude.

Biga Bai hezkuntza publikoko gurasoen elkarteak kezkatu dago. Izan ere, alde batetik gela anitz zabaldu dituzte euskarazko lerroan, 8 postu erdi berri irekiz, baina itxi ere egin dituzte eta 6 postu erdi kendu.

Horrez gain, eredu publikoan bi kezka nagusi daude. Alde batetik, herri guztietara zabaldu nahi da eredia. Irakasle eta gurasoen elkarteak eskaintza eman den herri orotan bete dela esan du, eta eskaintza hori zabaldu behar dela. Bestalde, ikasleen euskara kalitatea bermatzea nahi dute. Izan ere, ikasleen euskara maila ez da neurtzen hezkuntza publikoan. Eta irakasleena ere ez, eta kasu anitzetan ez dute ez EGA ez euskara probarik gainditu. Horregatik, ikasleen euskara maila neurtzeko tresnak sortzeko eskatzen diote EEP Euskararen Erakunde Publikoari.

Gazte batek A ereduak ikasi eta euskara ikasi ez zuelako jarritako salaketa atzera bota du epaile batek. Sopolako neska gazteak bere garaian Euskara irakasgaien nota onak izan arren, oinarritzko mailarik ez zuela lortu adierazi du.

Horregatik, ekainean salaketa jarritan Hezkuntza Sailari. 10.600 euro eskatzen dizkio horrek sortu dizkion kalte-ordainengatik. Azken bi urte hauetan euskaltegira joan da oinarritzko maila lortzeko eta lan eskaintza publikoetara aurkeztu ahal izateko. Gasteizko


administrazioarekiko auzi epaileak, ostera, atzera bota du argudio hori.

Emitza onak lortzeak ez duela esan nahi EGA maila lortu behar denik. "Emitza derrigortasunik" ez dagoela adierazi du. Bestalde, Hezkuntza Sailak bere funtzioak behar bezala bete dituela esan du, eta Sopolako ikastetxe publikoak "estandarren barruan" eskaini zuela bere zerbitzua.

Eva de Miguel erizain gaztearen abokatuak dio Euskal Hezkuntzaren Legea 1993koa dela eta ordutik ebaluazio jarraia egin beharra zegoela. Izan ere, egun agerikoa dela A eta B ereduak ez dutela euskalduntzen, eta D ereduak ere nekez egiten duela. Abokatuaren iritziz, kasu honetan jurisprudentziarik ez da ezarri, eta beste epai bat izan dezaketen antzeko beste salaketa batzuk etor daitezke.

G A I A

Etxeko irakasuntza



JON ZABALETA



Eskolatu gabe etxean ikasten

- Zer moduz eskolan?
- Ez naiz eskolara joaten. Etxean ikasten dut.
- !!!???

Gutxitan espero dugu horrelako erantzuna hain ohikoa den galdera horren aurrean. Hori entzundakoa, batzuek beldurra sentituko dute, beste batzuek poza, edo zalantza, konfiantza eza, kezka, kuriositate...

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak zera dio 26. artikuluan: oinarritzko eskolatzeari derrigorrezkoa dela eta gurasoek lehentasunezko eskubidea edukiko dutela seme-alabei eman zaien heziketa aukeratzeko.

Hor lekua izango luke etxeko irakaskuntzak. Baina herrialdeen arabera legeak aldatu egiten dira.

G

Iraskuntza unibertsala eta derrigorrezkoaren ondoren, herrialde garatuetan beste irakaskuntza mota bat sortu da: familiek euren seme-alaben heziketa beren gain hartzea erabakitzen dute, modu arduratsuan eta etxean bertan. *Eskola etxean, familian ikasi, familiako heziketa, etxeko heziketa, etxean ikasi, eskolarik gabe bezi, homeschooling, unschooling, learning otherwise...* modu askotara deitzen zaio. Ez da eredu hobea edo txarragoa, beste alternatiba bat gehiago baizik. Batzuentzat egokiagoa izango da, eta beste batzuentzat ez. Izan ere, etxean irakasteak baldintza batzuk eskatzen ditu, eta horiek eduki ezean, hobe eskolara joatea. Horrez gain, legeak eta inguruak ere ez dute asko laguntzen hainbat herrialdetan.

Etxean hezteak zera esan nahi du: seme-alaben heziketaren kargu egitea modu integrarean, bai ezagutzak eta abildadeak hartzeko, bai balioak eta printzipioak transmititzeko, eta beraz, funtzio horiek ez uztea inongo heziketa instituzioren esku.

Zergatik aukera hau?

Euskal Herrian gutxi dira etxean gelditzen direnak ikasten, eta gutxi horiek zenbat diren jakitea oso zaila da. Hemen ez dago inolako elkarerik; bai, ordea, estatu espainiarrean eta frantziarrean. Edonola ere, denek ez dute haietara jotzen. Batzuei ez zaie gustatzen beren burua argitara ateratzea, inguruan oraindik ere errezelo ugari sortzen baititu.

Bide zaila dute, baina euren ideiak garbi dituzte. Aldaketa sakonak bizitzen ari garen unean bizi gara, eta inguruneak balioak transmititzeko zuen funtzioa galdu egin duela iruditzen zaie. Eskola, oster, gaudituta dago curriculum hezigarria eskaintzeko behararekin, eta "ezkutuko curriculumem-

ko" hezitzaileak falta dira. Gauzak horrela, eskolak ezin dituela berme guztiak eskaini uste dute, eta beraz, ez dagoela arrazoirik beste heziketa aukerak baztertzeko. "Guk, guraso eta tutore legalok, gure seme-alaben heziketaren erantzuleok, heziketa eredu batean sinesten dugu: aldakorra den munduan herritar arduratsuak izateko gaitasunak hartzeko aukera emango duen heziketa nahi dugu, gatazka pertsonalak kudeatzeko gai izan daitezela, eta gaur egun jasotzen dugun informazioa eta datu pila ulertzeko gai izan daitezela. Ez dugu uste pertsona guztiek bide bereetik lortuko dutenik xede hori. Horregatik, etxean irakastea alternatiba baliagarria da gizarte heldu, plural eta benetan demokratikoan".

Bide hau hautatzen duten guztiek ez dituzte arrazoi berberak izaten, noski. Batzuek zio erlijioso edo ideologikoak izaten dituzte. Beste batzuek bide hau egokiago ikusten dute euren seme-alabek ezagutzak eta trebetasunak eskura ditzaten.

Nola irakasten dute etxean?

Irakasteko metodoak askotarikoak dira, eta gurasoen esku egoten da. Batzuek curriculum ofiziala jarraitzen dute. Beste batzuek erreferentziatzen hartzen dute berau, baina seme-alabek gai zehatz batzuekiko duten interesari ematen diote lehentasuna eta modu erakargarriagoan lantzen dute. Beste familia batzuek haurren kuriositate naturalaz baliatzen dira eta ez dute inolako curriculum ofizialik jarraitzen.



Legezkoa al da?

Portugalen

9/79 Legeak dio gurasoak direla seme-alaben lehenengo erantzuleak, eta heziketa hori gauzatzeko hiru modu aurreikusten ditu: publikoa, pribatua eta familia (553/80 lege dekretua). Etxeko heziketaren hautua egiteko familiak tokiko hezkuntza administrazioari jakinarari behar dio eta ebaluazio probak egin behar dituzte 4, 6 eta 9 urterekin.

Britania Handian

Etxeko irakaskuntza legala da. The Education Act 1996 (England and Wales) 7. atalak zera dio: gurasoek eskolatzeko adinean dauden seme-alabei euren adinaren, gaitasunen eta abildadeen arabera heziketa eraginkorra emango diete denbora gutxian, eta baita behar duten heziketa berezi guztia ere, eskolara bidaliz edota beste modu batera.

Italian

1994ko 297. lege dekretuak zera dio 110. artikuluan: gurasoek beren gain har dezakete seme-alaben (derrigorrezko) irakaskuntza. Hautu hori egiten duten gurasoek gaitasun ekonomikoa eta teknikoa dutela egiaztatzea behar dute eta dagokien hezkuntza autoritateari jakinarazi behar diote urtero.

Alemanian

Etxeko irakaskuntza ilegal da. Hainbat familia auzipetuak izan dira eta isunak ezarri dizkiete. Edonola ere, etxean jarraitzeko aukera eman zitzaion.

Herbeheretan

Seme-alabei etxean irakatsi nahi baldin bazaie, hezkuntza agintariegana jo behar da baimen eske. Syntax elkartearen esanetan, eskaeren % 90 ezeztatu egiten dituzte agintariek.

Euskal Herrian

Etxean irakastea legeztatuta dago **Ipar Euskal Herrian**. Estatu frantziarreko 1998ko abenduaren 18ko **Hezkuntza Kodeak** (1882ko martxoaren 28koa aldatzen duena) jasotzen du eskubide hori.

L. 131-1 artikulua

Irakaskuntza derrigorrezkoa da sexu bietako haurrentzat, frantses zein atzerritarrentzat, 6 eta 16 urte bitartean.

L.131-2 artikulua

Derrigorrezko irakaskuntza modu hauetan eman daiteke: ikastetxe publiko edo pribatuetan, familian gurasoek edo gurasoetako batek, edo eurak aukeratutako edozein pertsonak.

L.131-5 artikulua

L.131-1 artikuluan definitutako derrigorrezko eskolaldiaren garaian dauden haurren arduradunek haurra eskola publiko edo pribatu batean matrikulatu behar dute. Edo bestela, udalari, Akademia Ikuskaritzari eta Hezkuntza Nazionaleko Zerbitzuetako Departamentuko zuzendariari jakinarazi behar zaio familian irakatsiko diotela. Kasu horretan, urtero adierazpen bat eskatu behar da.

Haurrak 6 urte betetzen dituen urteko ikasturte hasieran egin behar da aipatutako derrigorrezko prozedura guztia, eta 16 urte bete arte ikasturte hasiera bakoitzeko egin behar da.

Bizilekuz edo irakaskuntza moduz aldatuz gero, bete behar berberak jarraitu behar dira aldaketaren ondorengo zortzi egunen buruan.

L.131-10 artikulua

Derrigorrezko eskolaldi garaian dauden eta irakaskuntza familian jasotzen duten haurrei galdetegi bat pasatzen dio dagokien udalak lehen urtetik

hasita eta bi urtero. Galdetegiaren xedea da haurren arduradunen arazoak jasotzea, eta egiaztatzea haurren osasunak eta familiaren bizi baldintzak egokiak direla familian irakasteko. Galdetegiak ez du ezer esaten irakaskuntza kalitateari buruz. Emaizak Akademia Ikuskaritzari eta Hezkuntza Nazionaleko Zerbitzuetako Departamentuko zuzendariari jakinarazi behar zaizkio. Bi urtetik behin berri behar da.

Galdetegia betetzen ez bada, departamentuko Estatuko ordezkariak bidartuko du.

Familiaren adierazpenetik hiru hilabetera eta gutxienez urtean behin, ikuskariak kontrol bat eramango du aurrera. Horrela egiaztatuko da haurrak jasotzen duen irakaskuntza bat datorrela haurrak irakaskuntzarako duen eskubidearekin (L.131-1-1 artikuluan definitzen dena).

Akademia ikuskariak preskribatzen duen kontrol hori haurren gurasoen etxean egingo da.

Kontrola behar den garaian egiten ez bada, dagozkion zigorrak ezarriko zaizkio familiari.

Kontrola aurkakoa edo kaltegarria baldin bada, ikuskariak epe bat emango dio familia egoera hobetzeko edo bere argudioak hobetzeko. Epe hori bukatutakoan beste kontrol bat egin dezake. Eta emaitzak ez badira nahikotzat hartzen, familiak berak aukeratutako zentro publiko edo pribatu batean matrikulatu behar du haurra 15 eguneko epean. Aukeratutako ikastetxearen berri eman behar zaio udalari, beraz Akademia ikuskariarekin, eskolarekin edota aukeratutako zentroarekin harremanetan jar dadin.



European

Giza Eskubideen Konbentzio Europarra (1952)

1. protokoloa, 2. artikulua

Inori ez zaio ukatuko heziketarako eskubidea. Heziketari eta irakaskuntzari lotutako edozein funtziotan, estatuak gurasoen eskubidea errespetatuko du heziketa eta irakaskuntza hori euren uste erlijiosoan eta filosofikoan araberara gara dadin.

Europako Konstituzioa egiteko hitzarmena

Estatu kideetako gobernuetako ordezkarien konferentzia. Brusela, 2004ko urriak 13.

II. Titulua: Oinarrizko Eskubideak eta Batasuneko herritarrak

II. artikulua-74. Heziketarako eskubidea:

1. Pertsona orok du heziketarako eskubidea, eta baita prestakuntza profesional eta etengabekorako eskubidea ere.

2. Eskubide horrek bere baitan hartzen du oinarrizko irakaskuntza dohainik jasotzea.

3. Lege nazionalak errespetatuz, zera errespetatzen da: ikastetxeak sortzeko askatasuna printzipio demokratikoak errespetatuz, eta gurasoek seme-alabentzat beren uste erlijioso, filosofiko eta pedagogikoekin bat datorren heziketa eta irakaskuntza bermatzeko duten eskubidea.

Espainiako Konstituzioa

27. artikulua, 1. atala

1. Denek dute heziketarako eskubidea. Irakaskuntzarako askatasuna aitortzen da.

3. Botere publikoek bermatzen dute gurasoek duten eskubidea euren seme-alabak beren usteekin bat datorren formazio erlijioso eta morala jaso dezaten.

4. Oinarrizko irakaskuntza derrigorezkoa eta doakoa da.

10. artikulua

1. Pertsonaren duintasuna, atxikirik dituen ezin bortxatuzko eskubideak, nortasunaren garapen librea, eta legea eta gainerakoen eskubideak errespetatzea, ordena publikoaren eta bake sozialaren zutabeak dira.

2. Konstituzioak oinarrizko eskubideen eta askatasunen gainean aitortzen dituen arauak Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren eta gai horiei buruzko nazioarteko akordioan araberara interpretatuko dira, betiere Espainiak berretsiak badira.

LOE

II. kapitulua

3. artikulua

3. Lehen Hezkuntzak eta Bigarren Hezkuntzak osatzen dute oinarrizko hezkuntza.

4. artikulua

1. Oinarrizko irakaskuntza derrigorezkoa eta doakoa da pertsona guztientzat.

5. artikulua

1. Pertsona guztiek eduki behar dute aukera bizitza osoan zehar prestatzeko, hezkuntza sistemaren barruan eta kanpoan, norberaren garapen pertsonal eta profesionalerako gaitasunak, ezagutzak, abildadeak, trebetasunak eta kompetentziak hartzeko xedearekin.

Haurrei eskatzen zaizkien ezagutzen edukia dekretuz finkatuta dago (1999ko martxoaren 23ko 99-224 dekretua).

R 131-18 artikulua

Gurasoek, tutoreek edo arduradunek ez baldin badiote udalari jakinarazten etxean edo kontzertatu gabeko zentro batean irakatsiko diotela, isuna jarriko zaie.

Hego Euskal Herrian etxeko heziketa ez dago arautua. Espainiako Konstituzioak babesten du familiak duten askatasuna euren seme-alabak ondoen irizten duten moduan hezteko. Era berean, ordea, etxeko irakaskuntzaren inguruan ez dago araurik edo legerik. LOEk ere ez daukera hori espresuki aitortzen. Beraz, lege aldetik hutsune bat dago.

Zenbait familia "salatuak" izan dira Gizarte Ongizate Saitetan euren seme-alabak ikastetxeetan ez eskolatzeagatik. Kasu horietan, ez eskolatzea tratatu txarren edo utzikeriaren zantzutzat hartu zen. Baina "salaketa" horietako gutxi iritsi dira auzitegietara. Epaila gehienek atzera botatzen dituzte salaketak utzikeriarik ez baizik eta ohikoa baino arreta gehiago dagoela frogatukoan. Egon diren epaiketa gehiengutan sententzia familiaren aldekoa izan da. Kasurik okerreanean, gurasoei jarritako "kondena" seme-alabak ikastetxe batean eskolatzea izan da. Ez litzateke logikoa izango seme-alaben custodia kentzea baldin eta frogatzen bada zainduta daudela. Horrelakorik ez da inoiz gertatu.

Azkenaldian administrazioak ez du inolako oztoporik jartzen.

Seme-alabei etxean irakasten dituen familiak legearen ondorengo artikuluetan oinarritzen dira beren eskubidea defendatzeko.

Kezka iturri nagusiak

AEBn

Gaur egun herrialde osoan baimendua dago homeschooling-a, baina estatuen arabera, legedia aldatu egiten da. Idahon, esate baterako, ez zaie inolako mugarik jartzen etxean irakasten duten gurasoei eta ez dute euren programa herriko edo estatuko agintariei aurkeztu beharrik. Oregonen, aldiz, haurrek aldizka “pertsona neutral eta kalifikatu” batek jarritako probak egin behar dituzte. Orokorrean gurasoei ez zaie eskatzen irakaskuntzan aritzeko gaituak egotea, baina estatu gutxi batzuek goi mailako ikasketak edo formazio ikastaroren bat eginga edukitzea exijitzen diete.

Estatu legeek zehazten dituzte irakaskuntza egunen kopurua eta eduki pedagogikoen ildo nagusiak. Gurasoek euren seme-alaben aurrerapenak jasota utzi behar dituzte, baina oso gutxitan eskatzen zaie “txosten” horiek erakunde ofizial batera igortzea.

Ikastetxeek harrera desberdina egiten diete etxean hezitako haur horiei: batzuek irteeretan edota zenbait ikasgaitan parte hartzeko aukera ematen diete; beste batzuek, ordea, ez.

Gaur egun, etxeko irakaskuntza da hezkuntza eredu pribatuen artean hedatuena AEBn.

Ohiko galderak

Formazio berezirik behar al dute gurasoek?

Ez, garrantzitsuena beraiekin egoteko gogoia edukitzea da eta norberak gauza berriak ikasteko kuriositatea edukitzea. Etxean ikasteak ez du esanahi denbora guztian etxean egon behar denik. Gurasoen papera ez da irakasle izatea, baizik eta seme-alabak inguruarekin eta beste pertsonekin harremanetan jartzea.

Nola sozializatzen dira etxean gelditzen dira haurrak?

Eskolara joaten diren eta joaten ez diren haurren arteko desberdintasun bakarra zera da: eskolara joaten direnak adin bereko haurrekin egoten direla, eta eskolara joaten ez direnak adin desberdinekoekin eta helduekin. Eskolaz kanpoko jardueretara ere joan ohi dira.

Etxean gelditzen bada, norbaiti esan behar al zaio?

Hegoaldean ez, ez baitago arautua. Iparraldean, ordea, bai. Udalari eta Akademia ikuskariari horren berri eman behar zaie haurrak 6 urte betetzen dituen urte zibilean hasi eta 16 urte bete arte, urtero. Hori egin ezean, isunak jartzen dira.

Zer egin behar da semea edo alaba eskolatik atera nahi bada?

Hegoaldean ez dago inolako prozedurarik. Normalean idatzi bat aurkezten da ikastetxea zein egunetan utziko duen esanez, absentismoaz sala ez gaitzaten. Eskualdeko Hezkuntza arduradunarengana edo ikuskariarengana jotzea ere egokia izan daiteke, duzun asmoa azaltzeko. Garrantzitsua da alderdi legala nola dagoen ezagutzea

administratibotik norbait etortzen bada ere. Normalean herriko gizarte ongizateko arduradunen eskuetan gelditzen da gaia.

Iparraldean, lehen esandako prozedura jarraitu behar. Eta hortik aurrera, legeak ezartzen dituen kontrolak bete beharko dira.

Eta eskolatu nahi bada?

15 urtera arte adinaren arabera eskolatzen dira. Sarreran azterketa bat egin ohi zaie.

Nola lor daitezke derrigorrezko irakaskuntzako tituluak eskolatu gabe egonda?

Azterketak nor bere aldetik eginga. Hegoaldean 18 urte betetakoan egiten da Bigarren Hezkuntzako azterketa librea, helduentzako deialdian. Eskolatutako gazteek 16 urterekin bukatzen dute eta etxean aritutakoek hori aldarrikatzen dute: azterketa 16 urterekin egitea, ez 18rekin. 12-13 urterekin eskolatu eta 1. edo 2. DBHn matrikulatzea ere posible da.

Iparraldean Brebeta eta Baxoa azterketetara aurkez daiteke. Horretarako eskualdeko errektoradutzan eman behar da izena.

Gerora goi mailako ikasketak egiteko, zer?

Hegoaldean, Bigarren Hezkuntzako titulua lortuta, Batxilergoa edo Lanbide Heziketa egin daitezke. Zuzenean goi mailako Lanbide Heziketa egiteko, beste azterketa bat egiten da 20 urterekin. Unibertsitateara joateko bi aukera daude: selektibitatea edo 25 urtetik gorakoentzako proba.

Iparraldean sarrera horiek egiteko mekanismoak formalizatuta daude.



Eta sozializazioa?

Bi emakumek topo egin dute parkean. Beren haurrak jolasten ari dira txirristan eta baloiarekin. Bi emakumeak, aulkian eserita, haurrak zaintzen ari dira. Une baten ondoren, hizketan hasi dira:

M: Kaixo. Martina naiz. Nire haurrak gorritz jantzita daudenak dira, horrela errazago zaintzen ditut.

T: (irribarre) Ni Teresa naiz. Nire haurrak arrosaz eta horiz jantzitakoak dira. Sarri etortzen al zarete hona?

M: Astean bizpahiru alditan, liburu-tegitik ateratakoan.

T: Oh! Nola moldatzen zara?

M: Haurrak ez dira eskolara joaten, etxean irakasten diegu. Beraz, sarritan etortzen gara bitarte horretan.

T: Baditut bizilagun batzuk eskolako etxean egiten dutenak ere, baina nireak eskola publikora joaten dira.

M: Eta nola moldatzen zara?

T: Ez da erraza. Gurasoen bilera guztietara joaten naiz eta egunero eginarazten dizkiet etxerako lanak eskolatik irten ondoren. Askok arduratzen naiz.

M: Eta sozializazioa? Ez al zaitu kezkatzen egun osoan bere adin bereko haurrekin itxituren edukitzeak, harreman naturalik izateko inongo aukerarik gabe?

T: Beno, bai, baina ahalegintzen naiz hori konpentsatzen. Haurrek etxean ikasten duten lagun batzuk dituzte, eta ia hilero haien aitona-amonon etxera joaten gara.

M: Mugitzen zara orduan. Baina ez al zaituzte kezkatzen haurrek galtzen dituzten aukera horiek guztiak? Bizitza errealetik hain isolatuta edukita, nola jakingo dute zeren antza duen benetako munduak edo bizimodua ateratzeko jendeak zer egin duen? Nola moldatuko dira mota desberdineko jendearekin?

T: Oh! Askok eztabaidatzen dugu guraso bileretan, eta gelan errealitateko jendea gonbidatzeko kaxa sortu dugu. Joan den hilean ertzain bat eta mediku bat etorri ziren gela guztietara hitz egitera. Eta datorren hilean emakume japoniar bat eta Keniako gizonezko bat etorriko dira.

M: Oh, lehengoan gizon japoniar bat aurkitu genuen supermerkatuan eta bere Tokioko haurtzaroz hitz egiten aritu zitzaigun. Haurrak liluratuta gelditu ziren. Afaltzera gonbidatu genuen eta bere emaztea eta hiru seme-alabak ezagutu genituen.

T: Ederra! Um! Beharbada plater japoniarrak eskuratu beharko genituzke Kulturarte Egunerako.

M: Akaso zuen gonbidatu japoniarrak bazkaltzen geratuko da haurrekin.

T: Oh, ez. Oso egun lanpetua dauka. Beste bi eskoletara ere joan beharra dauka egun horretan. Taldeka egiten ditugu proiektuak-eta.

M: Lastima. Agian interesgarria den norbait aurkituko duzue egunen batean supermerkatuan eta afaltzera gonbidatu.

T: Ez dut uste. Nik ez dut sekula hitz egiten jendearekin supermerkatuetan, eta are gutxiago beste hizkuntza batean hitz egingo duela iruditzen bazait. Japoniar horrek euskaraz jakin izan ez balu?

M: Ez nuen esaten ari zaren horretaz pentsatzeko ere astirik izan. Konturatu nintzenerako, 6 urteko semea galdezka ari zitzaion erosten ari zen laranja haiekin guztiarekin zuen asmoaz.

T: Atzerritarrekin hitz egiten al du zure haurrak?

M: Ni bere ondoan nengoen. Haurrak badaki berarekin baldin banago edozeinekin hitz egin dezakela.

T: Baina ohitura txarrak ari zara erakusten. Nire haurrek ez dute inoiz hitz

egiten ezezagunekin.

M: Ezta zurekin daudenean ere?

T: Haurrak ez daude inoiz nirekin eskolatik atera arte. Horregatik, ikusten duzu zergatik den horren garrantzitsua haurrak ulertzea erabat debekatuta dagoela ezezagunekin hitz egitea.

M: Ikusten dut. Baina zurekin egongo balira jende interesgarri asko ezagutzeko aukera edukiko lukete, seguruenik. Hartara, munduaren eta egoera errearen ezagutza edukiko lukete. Beraiek ikasiko lukete arriskuan dauden edo ez antzematen.

T: CE2n eta CM2n, Hiriko Ikasketetan ikasiko dute hori.

M: Beno, ikusten dut arduratzen zarelara. Nire telefono zenbakia emango dizut. Inoiz hitz egiterik nahiko bazenu, dei egidazu. Pozten naiz zu ezagutzeaz.

Egile ezezaguna

Helbide interesgarriak

- ALE, Asociación para la Libre Educación: www.educacionlibre.org
- Crecer sin Escuela: www.crecersinescuela.org
- OFE, Organización Familia Escolar: www.familiaescolar.com
- www.aprendersinescuela.net
- Les Enfants d'abord: www.lesenfantsdabord.org
- http://ecolesdifferentes.free.fr
- www.cise.ass.fr
- http://laia.asso.free.fr
- XELL, Xarxa d'educació lliure: www.educaciollliure.org
- Neixer i Crèixer: www.geocities.com/neixer_i_creixer
- http://es.groups.yahoo.com/group/educacionlibre
- www.education-otherwise.org
- www.hotlgws.com
- http://learninfreedom.org/homeschool_growth.html

Zabaleta Berra familiaren esperientzia

“Jendeak ez du konfiantzarik etxeko irakaskuntzan, ez du sinetsi nahi”

Oihan Zabaleta Berrak 16 urte ditu. Batxilergo internazionalako 2. maila egiten ari da eta datorren urtean arkitektura egiteko asmoa du. Bere eskolako ibilbidea, ordea, ez da ohikoa izan: 10 urte-ekin hasi zen ikastolan. Ordura arte etxean ikasi zuen gurasoekin.



Oihanek 2 urte bete zituenean baseritik herrira jaitsi ziren eta ikastolan hasi zen. “Hasierako 20 egunetan gurasoak han egoten ginen eta oso ondo gogoratzen naiz. Oihanek eseritzeko modu bat zeukan, bere aulkia, bere orria, bere margoak, bere egitekoa... bere espazioa. Beste haurrek, ordea, ez. Alde batetik bestera mugitzen soilik zekiten, ez zeukaten espazio indibiduala landua. Guk, nahigabe, familiaren inguruko giroa biziz, nolabait leku bat ematen genion. Hori ikusita, pentsatu nuen: haur hau aberatsagoa izango da etxean jarraitzen badu”.

Ez zen erabaki solte bat izan, familiaren prozesuaren barneko erabaki bat baizik. Hala dio Jon aitak: “Gure herriatik eta ingurunetik atera egin ginen zenbait baliorekin ez geundelako konforme. Eta eskola gizartearen jarraipen bat denez, ez genuen eskolara bidali nahi. Ez genuen gure semea txikitatik han izorratzerik nahi. Etxean eskolan baino hobeto egongo zela pentsatzen genuen”. Horregatik, bide hori hautatu zuten, egiten zuten horretan sinestuz. Lasai, bazekitelako zer egiten zuten.

Horrelako erabaki bat hartzeko, ha-

lere, baldintza batzuk behar direla diote. “Ingurune egokia, irakasteko norbait etxean, ikasteko ordutegi bat, programa bat, haurrekin egiteko modua eta denbora, eta egiten duzunean sinestea”. Horiek bazituzten. Aitak etxetik egiten zuen lana eta ama ere etxean aritzen zen. “Gurasoek etxetik kanpo egiten badute lana, agian hobe da eskolara bidaltzea”. Baserrian bizi ziren eta horrek inguruaz eta naturaz gozatzeko eta bizitzeko aukera ematen zien. “Eskolan liburuetan ikusten dena, nik zuzenean bizi izan dut” gaineratzen du Oihanek.

2 eta 10 urte bitartean etxean

2 eta 5 urte bitartean etxean jardun zen Oihan, eta 5 urte betetzear zegoela, irailean, etxe ondoko ikastetxera joan zen. “Hilabete egon zen. Hasieran pozik, gero ez. Andereñoa aldatu zioten eta baita gauzak lantzeko modua ere. Ez zitzaidan gustatu, eta berriro etxera itzuli ginen” dio Kristina amak.

Handik urtebetera, hurrengo ikasurte hasieran, berriro joan zen. Irakasleek taldeak eginak zeuzkaten, baina

beraiek ez zeuden adostasaldeak egiteko moduarekin, eta atera egin zuten. “Pentsatu genuen hobe genuela etxean jarraitzea, eta geroago, indartsuago zegoenean itzultzea”. Horrela, ia 10 urte egiteko zegoenean bueltatu zen, berak eskatuta.

Etxean ikasten

Etxean egonda, beste modu batera ikasteko aukera izan zuen Oihanek; eguneroko bizitzako tresnak erabiliz, gauzak modu grafikoagoan eta praktikoagoan eginez. Adibidez, ingurunea ikasteko, kanpora ateratzen zen. Jateko moduei buruz hitz egitean, sukaldian aritzen ziren benetako jakiak eskuan hartuta. Eskulan asko egiten zituen bere kasara, gero eta material konplexuagoak erabiliz: alantrezko eskulturak, bonbilak jarri, elektrizitateko gauzatxoak... Eskuak erabiltzeko gauza asko.

Irakurtzen eta idazten ikasteko euskarara itzulitako metodo aleman bat erabili zuten. “Niretzat oso egokia zen. Ikurren bidez ikasten ziren letrak” dio amak. “Matematika eta zenbakiak ikas-



teko garaian, berriz, batuketak, kenketak, biderketak eta abar egiteko modu desberdinak ikusten genituen. Horrela, gauzak ikusteko edo egiteko ikuspegi askotarikoak daudela jabetu zen, eta hori oso aberasgarria eta garrantzitsua da bizitzan zehar”.

Geroxeago eskolan erabiltzen diren liburuak erabiltzen hasi ziren, batez ere, beste haurrekin haiek lantzen zutenaz hitz egiteko. Nolabaiteko zubi lana egiteko balio zuten testu liburuak. Normalean egunero bi ordu edo bi ordu 1/2 erdi dedikatzen zioten ikasteari, eta denbora horretan eskoletan sei ordu tan egiten dutena egiten zuten.

Gurasoetako inorez da irakasle lanbidez, baina ez dute horren faltarik sumatu. “Eduki behar dena sen ona da. Haur bat zer den jakitea eta komunikatzeko trebetasuna edukitzea da garrantzitsua”.

Oztopo nagusiak: legea eta jendearen konfiantza eza

6 urte 1/2 zituenean udaletxetik abisu bat jaso zuten haur bat eskolara joan gabe zegoela, eta hori aztertzerako joan zen pertsona bat, ea zainduta zegoen edo ez ikusteko. Berehala konturatu zen ondo zaindua zegoela. Egoera ulertu zuen eta aurrera jarraitu zuten. “Arrisku legalak handiak dira eta aurre egin behar zaie egiten ari zarenaz ziur baldin bazaude” dio Kristinak.

Jendeak ez duela konfiantzarik diote. “Oso zaila da ofizialtasunetik kanpo dauden gauzei balioa ematea. Ez dute sinetsi nahi izaten” gaineratzen dute. “Kalean egunero galdetzen dizute zergatik ez duzun eskolara bidaltzen, gaizki egiten ari zarela... Ezin genuen edozein ordutan kalera atera, gaizki ikusia zegoelako”.

10 urterekin eskolatu zen

Oihane 10 urte bete zituenean eskolara joan nahi zuela esan zien gurasoei, eta orduan hasi zen. “Kuriositateagatik joan nahi nuen, lagunek zer egiten zuten jakin nahi nuelako. Eta baita haiekin denbora gehiago egoteko ere, ikasurtean zehar bakarrik gelditzen baintzen” dio.

Adinagatik 5. mailan hastea zegokion, baina 4. mailan hastea nahi zuten eskolan. Amak ezetz esan zuen, 4. mailako edukiak emanak zeuzkala eta aspertu egingo zela. Ez zuten sinesten etxean egindakoan, baina azterketa egin ondoren, harrituta gelditu ziren. 5. mailan hasi zen. Geroztik oso ondo ibili da ikasketetan.

Egindako ibilbideari begiratu bat emanda, gurasoak gustura daude. “Hasierako helburua oso irekia zen. Ez genuen inoiz helmugarik jarri. Une bakoitzean onena iruditu zaiguna egin dugu. Txikitatik eduki du erlazioa bizitzarekin eta gizartearekin eta gauzak diren bezala ikusi ditu: gurasoak lan egiten, gurasoak festetan, landatzeko edo biltzeko garaia... Haurrak gela barruan

baldin badaude, ezin dute hori ikusi. Ontzi batetik bestera joaten dira: etxeko ontzitik autoko ontzira, eta handik gelako ontzira. Ez dute mundua ezagutzen. Oihane adin desberdineko lagunekin eta helduekin izan du harremana eta ez eskolan bezala bere adinekoekin soilik. Gu oso kritikoak ginen horrekin guztiarekin eta mundu hori ezagutzeko aukera eman nahi genion semeari. Gizartearen korrontearen kontra joan gara eta nekatuta gaude, baina gustura, atera denarekin konforme”.

**Jon eta Kristina:
“Eskolara joan gabe etxean irakasteko, baldintza batzuk behar dira. Guk bagenituen”**



Zabaleta Berra familiaren esperientzia

OIHAN: “Etxean ikasiz jasotako oinarriekin, nire kriterio propioak edukitzea lortu dut”



Zerekin topatu zinen 10 urterekin eskolan hasi zinenean?

Arau askorekin. Gauza batzuk ez ziren logikoak niretzat, eta oraindik ere ez zaizkit hala iruditzen.

Irakasle-ikasle arteko erlazioa ez zait gustatzen. Behin irakasle batek hala esan zigun: “Hau diktadura bat da. Ni maisua naiz eta zuek ikasleak. Nik zer bait egiteko esaten badut, zuek obeditu egin behar didazue”. Nire ustez, pertsona-pertsona arteko erlazioa izan behar du, kontuan izanik batek gehiago jakin dezakeela.

Gustatu ez zitzaidan beste gauza bat denak berdind tratatzea izan zen. Denak ez gara igualak eta bakoitzak tratatu berezia behar du. Ez dut esaten ikasle bakoitzeko irakasle bat behar denik, baizik eta ez tratatzea denak modu berdinean.

Notak jartzea ere ez zait iruditzen modurik egokiena denik zenbat dakin jakiteko. Kriterio batzuen arabera ebaluatzen gaituzte, eta agian beste kri-

terio batzuekin beste nota bat edukiko genuke.

Konpetentziaren zentzua ere berria izan zen niretzat, etxean ez bainuen halakorik bizi izan. Nik ez neukan posesio materialik ere, baina eskolan denek zeukaten, “ea nork daukan gehiago”.

Eta azkenik, ofizialtasunarekin egin nuen topo. Eskolak hori dauka, eta hortik ateratzen ez bagara, ez dira gauza berriak sortzen, ez dago pentsatzeko beste erarik. Desberdintasunik ez badago, ez dago aldaketarik, ez hobekuntzarik, ez ezer. Geldituta dago. Eta hori ez zait oso ondo iruditzen.

Gauza positiborik topatu al zenuen?

Bai, jendea ezagutzea, lagunak egitea. Eta ofizialtasuna zer den ikastea. Zeren gizarteak gauzak egiteko modu bat eskatzen dizu, eta hori ikastea ona da.

Egindako ibilbidea errepikatuko al zenuke?

Bai, bai, baina gogorra izan da, oso gogorra. Beste askok baino zailago eduki ditut hainbat gauza, baina uste dut azkenean, benetan, merezi izan duela. Nire bizitza daramat, lagunak egiteko ez dut inolako arazorik, nire arrazoiak dauzkat, ez nago manipulaturik. Eskolan ofiziala dena ona dela erakusten dizute, eta beti ez da hala. Batzuentzat ona da, baina beste batzuentzat ez hain ona. Horregatik, kriterioak edukitzea garrantzitsua da.

Hasierako urteetan etxean jasotako oinarriekin nire kriterio propioak edu-

kitzea lortu dut. Eskolan txiki-txikitatik hasten dira esaten zer den ona, zure bizitzan zer den garrantzitsua edo zer egin behar duzun, eta zuk sinestu egiten duzu. Aldiz, inork ez badizu esaten zer den garrantzitsua edo zer egin beharko zenukeen, zuk zeuk probatu eta ikusten duzu zer den hoberena. Zuk zehorrek, ez besteek esanda.

Noski, eskolaren eta gizartearen eragina jaso dut, baina nire kriterio propioa daukat. Badakit gizarteak eskatzen dituen minimo batzuk betetzen, baina nire izaera aldatu gabe.

“Gogorra izan da, baina uste dut azkenean, benetan, merezi izan duela”



EHIN ABENTURARI KOSMODISEA

ZIBERESPAZIOKO ABENTURA, KULTURA
EKINTZAILEAREN ETA DIGITALAREN
BALIOAK SUSTAZERA ZUZENDUA LEHEN
HEZKUNTZAN, DBHN, BATXILERGOAN
ETA HEZIKETA ZIKLOETAN.

OSATU ZURE TALDEA
ETA PARTE HARTU!



INFORMAZIOA:

www.kosmodisea.net

900 840 842

KOSMODISEA

GIPUZKOA
berrikuntza lurraldea
territorio de innovación
www.gipuzkoainnovacion.net



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Berrikuntzarako eta Jakintzaren Gizarterako Departamentua
Departamento para la Innovación y la Sociedad del Conocimiento


-REN EKIMENA DA

josu txapartegi

ELKARRIZKETA

“Txapas” maisua

“Gauza bera eskatzen diet irakasle berriei zein zaharrei: haurrei begiratzeko eta zintzoak izateko”



josu txapartegi “txapas”

E

“Ahalegin bat egin beharko litzateke euskal haurrarekin pedagogia berezi bat planteatzeko. Zergatik? Herri bakoitzeko haurrak hari ongi egokituko zaion pedagogoak eduki behar duelako aurrean.”

Belaunaldi oso bat jubilatuko da datozen urteetan irakaskuntzan. Adin beretsuko irakasleak, garai beretsuan hasitakoak. Batzuk jubilatuko egingo dira, baina ez erretiratu. Horietakoa dugu Josu Txapartegi “Txapas”, orain arte Zarauzko Salbatore Mitxelena ikastolako irakasle izan dena.

Bertatik pasatako hurrek eta gazteek Txapas maisua eskusoinuarekin gogoratzen dute. Irudi hori gelditu zaie buruan. Haur txikiekin jardun izan da, baina horrez gain, Musika-ko irakasle ere izan da. Ikastolako festa eta jaialdi guztietan dantzan eta kantuan jarri izan ditu denak.

Zarauztik kanpo ere ibili da han eta hemen. Irakasle Elkarteko partaide izan zen. Hik Hasiren sortzaileetako bat ere bai. Euskal curriculumaz hitz egiten aintzindari; eta orain euskal pedagogiaren inguruko kezka agertu du. Hainbat eztabaidetan partu hartu izan du, bere iritzi propioa irmotasunez defendatuz.

Batzuetan filosofo serioaren paperean eta beste batzuetan kantu kantari eskusoinuaren, pianoaren edo gitarraren erritmoan. Oraingo honetan, pedagogiaz eta euskal irakaskuntzaren ibilbideaz jarri dugu hizketan.



Irakaskuntzan 32 urtetan jardun ondoren, aurten ikasturteko lehen egunean ez zara ikastolara joan. Zer sentitu duzu?

Poz handia. Lasaitasuna eta poza. Aurreneko egunean 14 km egin nituen oinez Aiatik Andazarratera bakar-bakarrik, zoriontasunean, bakardadean, oso gustura. Ni gustura nago egindako lanarekin eta apustuarekin. Ez dut sentitzen apustu txarra izan denik bizitza irakaskuntzara dedikatzea. Gustura nago egin dudanarekin. Ez da asko izan, baina egin dudanak ideia batzuei babesa emateko balio izan du. Nik uste dut ideia horiek onak izaten jarraitzen dutela, sentimendu hori daukat.

Zein dira, bada, garai hartan defendatzen ziren eta oraindik ere baliagarriak diren ideia horiek?

Urte haietan arazorik gordinena hizkuntzarekin ikusten nuen. Eta nik, nola ez nekien beste gauzarik egiten, pentsatu nuen: ea irakaskuntzan zeozer egiten dudan haur hauek euskalduntzeko. Eta horixe egin dut urte hauetan: euskara defendatu, euskaraz hitz egin, euskaraz animatu eta, ahal bada, euskara maitagarri egin.

Horrekin batera, garai hartan beste fenomeno bat nagusitu zen irakaskuntzan: politikariek ez zela egin behar. Eta hori hanka-sartze historiko bat izan da.

Zergatik diozu hanka-sartze historiko bat izan dela irakaskuntzan politikariek ez egitea?

Ez ginen kapaz izan politika eta alderdikeria desberdintzeko. Nazio guztiek defendatzen dute hezkuntzan posizio politiko bat, eta guk ere Euskal Herriaren aldekoa, askatasunaren alde-

koa mantendu behar genuen haurren aurrean. Hori egiteko eskubidea eta betebeharra genuen, nazio guztien moduan. Beste gauza bat da irakasleak eduki dezakeen aukera politikoa. Hori bazterzea ondo bilatzen dut.

Baina euskaraz erakustetik aparte, ezer ez esatera pasa ginen: euskara, folklore pixka bat eta gauza kultural arrunt batzuk. Geografia erakusteko garaian ere, zazpi probintzia ginela esatea politika egitea zen, eta isildu egin behar. Urte askotan egon gara horrela, eta kalte handia egin duela iruditzen zait.

Hortaz aparte, ezin esan euskara ere salbatu dugunik urte hauetan. Oraindik horretan darraigu.

Nik uste dut euskara ni eskolan sartu nintzenean baino abantaila hobean dagoela aurrera egiteko. Baina orduan ez zegoen arrisku handi bat dator orain globalizazioarekin. Ni ados nago Goizon Garatek hizkuntzei eta kulturei buruz egiten duen planteamendurekin eta azkenaldian politikari buruz ere egiten duenarekin: independentzia beharrezkoa dela euskara aurrera atera nahi bada. Eta baita Jose Manuel Odriozolarekin ere. Aspalditik esaten du honek botere politikoa beharrezkoa dugula planteamendu kultural oso baten barruan hizkuntza aurrera ateratzeko.

Gaur egun denok hitz egiten dugu euskal curriculumaz, baina orain dela 15-20 urte horretaz hitz egiten hasi zen lehenengoetakoa izan zinen. Zergatik?

Oteizak esnatu ninduen. Badira 40 edo 50 urte esan zuela euskara ez zela salbatuko bere testuinguruan, bere habia kulturean, propioan, naturalean sorrarazi zuen jende hura errekupearitzen ez bazen. Ez zela posible euskara salbatzea euskara sortu zuen gizakia lehenik osatzen ez bazen. Ez zegoen ados planteamendu euskarazale hutsarekin, hots, euskara salbatuko zela, besterik gabe, defendatuz.

Oteizaren ustez jatorrizko euskaldun hori erabat galdua zebilen, eta horregatik, berak egin zuen planteamen-

du kultural-artistiko-estetiko hori euskaldun horren berezitasunak zein izan daitezkeen aztertzea doa. Gizaki hura bideratzen bagenuen, horrek egingo zuen posible berriz ere euskara modu natural batean errekupearzea.

Niretzat pozgarria izan da urteak pasa ahala curriculumaren gaia hurbiltzen ikustea eta orain mahai gainean eta ondo bideratua dagoela ikustea. Haurrari esan egin behar zaio zer eta nor garen, gure gauzak nola izan diren eta nolako herri proiektua irudikatzen dugun. Hor jaiotzen da euskal curriculum.

Orain, berriz, euskal pedagogiaz hitz egiten hasi zara, horretan ere aintzidari. Zer da euskal pedagogia?

Gai berria eta zaila da, baina nik uste dut ahalegin bat egin beharko litzatekeela euskal haurrekin pedagogia berezi bat planteatzeko. Zergatik? Herri baikoitzeko haurrak hari ongi egokituko zaion pedagogoa eduki behar duela aurrean. Adibidez, baserriko haurra baldin bada, jarri iezaiozu baserriko mundua ondo ezagutzen duen irakaslea. Eta oso rockeroa baldin bada, rocka sentitzen duena. Ez ezazu jarri haurraren testuingurua ondo ezagutzen ez duen irakaslerik. Haurrari egokitutako irakasleak arrakasta gehiago edukiko du bai haurrekin eta bai pedagogia lanarekin.

Eta zer da euskal haurra?

Inork ez dio heltzen gai horri, baina badauzkat susmo batzuk euskal haurraren ezaugarriei buruz. Ni konturatzen naiz haurrekin euskaldun gisa planteatzen ditudanean gauzak, hau da, bere sotaltasunean, txikitasunean, hurbiltasunean, herriko goxotasun batean, haur horiek erraz irabazten ditudala. Haur horiek bat eginda sentitzen dira. Ostera, gauzak neutralago egiten hasiz gero, agian asmatuko duzu edo agian ez. Esate baterako, ez ezazu jarri haur euskaldun baten aurrean itzulginguruka eta gauza bat esateko mila buelta ematen dituen irakaslerik. Euskaldu-



nok, eta haur euskaldunek ere bai, gauzak nahasmendutan ibili gabe jakin nahi izaten ditugu, zuzenean. Gure pentsamendua zuzena da, ez ibili bueltak, ez erabili hitz asko gauza bat esateko. Bestetik, herri txiki batekoa da gure haurra. Egin eskalako planteamenduak, tamainakoak. Intuizio batzuk besterik ez dira.

Orduan, euskal pedagogiaz edo euskal haurrari dagokion pedagogiaz hausnartu beharko genuke.

Nik uste dut baietz. Uste dut hori planteatzeko ordua dela, eta norbait hasiko dela horri buruzko ikerketa egiten. Erreserba askorekin egingo du topo, noski. Gaurko pedagogoei esango diote haurra mundu osoan berdina dela eta abar, eta onartu egin beharko dira kritika horiek hasieratik, gizakiak denak berdinak garelarako, oinarri berak ditugulako.

Baina agian, urteetako ikerketen ondorio moduan ikusiko balitz merezi duela pedagogia profil bat definitzea euskal haurrarentzat, nik uste dut hori ona izango litzatekeela. Profil oso zabalak izango litzateke, baina elementu positibo batzuk edukiko litzuke haurrarentzat.

Adibidez, zigorra. Berdin al da zigorraz hitz egitea Alemanian edo Euskal Herrian? Estatu izugarri baten barruan edo herri txiki batean?

josu txapartegi “txapas”

E

“Irakasle batek ez du haurra bakarrik eduki behar kontuan, haren testuingurua ere bai. Horregatik, ez dut ulertzen eskolatik kanpo sozialki ezer egiten ez duen irakaslea. Niretzat kritikotasuna kontzientzia sozialean oinarritzen da, eta hori da merkatuak desagertarazi nahi duena.

”

Lehenago irakasleak eta oraingoak. Zer eboluzio ikusten duzu?

Nahiko eszeptikoa naiz gaur egun egiten diren planteamendu batzuekin: haurrak asko aldatu direla, gurasoek edozer gauza egiten uzten dietela... Nik inpresioa daukat lehenagoko haurrak eta oraingoak igualak direla. Testuingurua da aldatzen dena eta hori da zaindu behar duguna. Irakasle batek ez du haurra bakarrik eduki behar kontuan. Irakasleak haur horren testuingurua zein den jakin behar du. Irakasle lanak, gainera, testuinguru horretan mugitza eraman behar du. Horregatik, nik ez dut ulertzen eskolatik kanpo sozialki ezer egiten ez duen irakasle bat. Zeren haurrak maite baditu, haurren aldekoa bada, saiatu behar du gizartean dagoen egitura hori ahal den egokiena izan dadin hurrengo belaunaldientzat. Irakasleak, baita ere, ikuspegi irekia eduki behar du. Zer ekarri dezaket eskola kanpotik haurrentzat normalean egiten dugunetik aparte? Herri bakoitzean dago jende interesgarria jakintza eta sentimendu onasko eskolara hurbil dezakeena. Horrek aberasten du irakaskuntza.

Gurasoak ere berdintsu ikusten ditut. Esaten denean gurasoek edozer gauza egiten uzten dietela seme-alabei, nik ez dut horrelakorik sumatzen.


Nik sumatzen dut haurrari errieta egiten zaiola behar duenean.

Ez dut kezka berezirik haurrak desberdinak ote diren, gurasoak desberdinak ote diren... Uste dut denok ahal duguna eginez gabiltzala. Borondate onarekin ikusten ditut, eta irakasleak ere bai. Kezkatzen nauena sortu dugun edo diguten egitura sozio-ekonomikoa da, mundua nola ari garen antolatzen. Horrek kezkatzen nau. Hor denok ere askoz gehiago busti behar garela uste dut.

Alda al dezakegu gizarteak daraman norabidea?

Mendebaleko gizarte mota hau horma baten kontra doan trena da. Hasi dira batzuk esanez trena gelditzen eta norabidez aldatzen hasi behar dela. Nik ez dut uste hormaren kontra joango garenik. Zeren gizakiarengan ez du sentimenduak edo interesak soilik irabazten, logikak ere irabazten du. Eta logikak esaten dizunean galtzera zoazena askoz gehiago dela irabazten ari zarena baino, orduan hasten zara kezkatzen. Arrantzaleei horixe gertatu zaie. Ikusi dutenean galtzera doazela, ez dagoela arrainik jada, orduan egin dute atzera. Orduan esaten digu buruak horrela ezin dugula jarraitu.

Bestalde, gizartea aldatzeko, bertan



dauden ideiak publikoki eztabaidatzea ere garrantzitsua da. Zarautzen, adibidez, eztabaida bat eduki dugu. Diputazioa eta herriko kirol arduradunak haur futbolari onenak hartu eta 12-13 urterekin mundu horretan sartzearen alde zeuden. Herriko ikastetxeok, berriz, 14 urtera arte, txarragoek eta hobeeek elkarrekin jokatzeko jarrai zezaten defendatzen genuen. Orain jakin dut azkenean konpetitibitate arlo horrek irabazi duela, ez ikastetxeen ereduak. Eman dezagun eztabaida hori publiko egiten dela; telebistan-eta alde bateko zein besteko argudioak eta ondorioak azaltzen eta eztabaidatzen direla. Orduan, nik uste dut gehiengoak konpetitibitate hori ahal den gehien atzeratzea defendatuko lukeela. Jendearen aurrean hitz egiten denean, badaude normalagoak diren balio batzuk, sen onarekin hitz egiten da. Horregatik uste dut, nahiz eta ideia desberdinak egon, publikoki defendatzen diren ideiak oraindik zentzuzkoak direla eta komeni dela gizartean eztabaida horiek publiko izatea.

Arrisku horiek egonda, zein izan daiteke eskolaren egitekoa une honetan?

Nik sumatzen dut datorren eskolan garrantzia ematen jarraituko zaiela natur zientzia zehatzei (matematika, fisika...). Gai horiek ondo zainduko direla pentsatzen dut eta baliabide teknologiko gehiagorekin erakutsiko direla.

Horrez gain, orain arte bazterrean egon diren hainbat gauza ere landuko dira: harremanak, politika, pedagogia... Haurrak politizatu egin behar dira. Ez ideia konkretu batzuetan, baizik eta mundua ulertzeko, gizartearen barruan kokatzeko eta biharko gizakiak izango dituen arazoak ulertzeko. Eta horretarako, eskola izango da leku egokiena. Adostasun handi batekin, ideia orokor batzuk pasa egin behar zaizkio hurrengo belaunaldiari: "hau da daukaguna, hau da guk egin duguna, ondo edo gaizki, eta hau da pasatzen dizueguna". Beren testuinguruan kokatu behar dira; ez irakaskuntza aseptiko bat egin, nik nire gaia eta kito.



Horrez gain, iruditzen zait pertsona bakoitzaren barne mundua askoz ere gehiago hartuko dela kontuan belaualdi berriekin arrakasta izan nahi bada: sentimenduak, mundu espirituala, artea, nortasuna... Gizarteari normalean ez zaio interesatzen ordenagailuetan asko dakien 18 urteko gazte bat, baina gero kezka sozial bakar bat ere ez daukana; bere dirua, bere etxea, bere bizitza eta besterik ez duena.

Baina merkatuari bai.

Ez dut uste borroka hori merkatuak irabaziko duenik. Hala ematen du, baina ez dut uste irabaziko duenik. Ust dut merkatuaren aurrean hezkuntzaren pedagogia proiektu oso bat jaioko dela.

Pentsa dezagun merkatuan oinarritutako gizarte batean. Bata bestea jaten hasiko ginatke. Gauregun horra goaz, baina argi gorriak aspaldi daude piztuta. Gaur jaiotzen ari den ideia garrantzitsu bat hauxe da: zuk zoriotsu izan nahi al duzu bakarrik, gizabanako moduan? Bada begira zer esaten dizudan; ez zara izango. Zergatik? Norberaren zoriontasuna gainerakoen, gizarte osoaren zoriontasunak baldintzatzen duelako. Gizarte osoaren fruitua da norbera zoriotsu izatea. Gizarte orekatu samarra baldin bada, norberak ere zoriotsu izateko bidea edukiko du. "Zoriotsua naiz, BBKko gerente izatera iritsi naiz" esango du batek, baina leihora irten eta gizarteari begiratzen dionean, bere zoriontasuna iluntzen hasiko da.

Gehiegizko informazioaren aurrean, zer egin behar du eskolak? Kritikotasunik lantzen al da?

Niretzat kritikotasuna lehen esan dudanarekin lotuta dago. Kontzientzia sozialean oinarritzen da, eta hori da merkatuak desagertarazi nahi duena. Margaret Thatcherrek hala esan zuen orain dela 8 urte: "gizarte ez da existitzen, existitzen dena da pertsona konkretuak, indibidualak, eta familia". Hori da merkatuak lortu nahi duena; gu ez sentitzea gizarte bat, gizarteko partaide. Horren aurrean, pentsamendu kritikoa da bizitzarako irizpide sanoa.

Gizarteak pertsona indibidualak bultzatzen ditu. Eskolaren balioak kontrakoak dira. Borroka hori nola lantzen da eskolan?

Nik uste dut ausartagoak izan beharko genukeela. Gai horietaz hitz egin beharko litzateke klaustroetan, klaustroetatik desagertuta baitaude.

Are gehiago, haur kritikoa normalean buila pixka bat ateratzen duena da eta zigortu egiten da. Eta haur otzana, guztiaren ados dagoena edo arazoaren aurrean beste aldera begiratzen duena aurrera doa, hari ez diogu ezer esaten. Orduan, zer eredu ari gara ematen?

Haur parte-hartzailea, kritikoa, sortzailea... heztearen eta da hezkuntza proiektu askoren helburua. Lortu al da urte hauetan?

Hor huts egite batzuk eduki ditugu. Gazteak ginenean egiten genituen

josu txapartegi “txapas”

E

“**Nortasuneko haurrak egin behar ditugu. Pertsona bakoitzak bere nortasun propioa izan behar du. Bakoitzak bere iritziak sendotasunez defendatzea ona da. Hori lortzen bada besteenganako begirada batekin, ikuspegi sozial batekin eta inguruarekiko errespetuarekin, perfektua litzateke.**”

ikastaroetan oker zegoen planteamendu bat defendatu izan dugula uste dut. Italiatik etorritako korronteak ziren, partidu komunistaren inguruan sortu ziren eskola alternatiboenak. Hala zioten: haurrak aukeratzin duen horretan sinesten duena da eskola alternatiboa. Zergatik? Etorkizuneko helduak beraiak direlako.

Nik uste dut ideia hori oker dagoela. Oteizak alderantziz esaten zuten: haurtzaroa bizitzako etapa bat da. Haurraren aurrean heldu eredu bat jarri behar da. Eta nolakoa izan behar du heldu horrek? Gizarte horrek etorkizunerako planteatzen dituen ideiak adierazten dituena.

Planteamendua zeharo desberdina da. Ez du haurrak aukeratu behar zer heziketa eredu komeni zaion. Hori gizarte batek definitu behar du publikoki eta demokratikoki eta gero irakasleak transmititu.

Edonola ere, oreka bilatu behar da, haurraren ahalmenak, iniziatibak eta interesak ezin baitira ukatu; aitzitik, horiek ere aintzat hartu behar dira. Nortasuneko haurrak egin behar ditugu. Pertsona bakoitzak bere nortasun propioa izan behar du. Bakoitzak bere iritziak sendotasunez defendatzea ona da. Hori lortzen bada besteenganako begirada batekin, ikuspegi sozial batekin eta inguruarekiko errespetuarekin, perfektua litzateke.

Urte hauetan zehar “moda pedagogikoak” eduki ditugu. Zer iritzi duzu horietaz?

Euskal pedagogiak oso gauza oinarritua izan nahi du, urte askotan luzatuko litzatekeena irakaskuntzan, eta ez moda moduan.

Normalean modak etortzen direnean 10 bat urterako izaten dira. Eta irakasleok badaukagu horietara jotzeko joera, gure eguneroko lanean positiboa baita aberastu nahi izatea. Gutxienez joan egiten gara ikustera zer den. Kuriositate hori mantentzen da irakaskuntzan.

Baina alditan arriskutsuak dira, korrante horiek etortzen direnean ez ditu-



gularako galderak garbi egiten. Isildu egiten gara, eta orduan, etortzen denak lan erdia egingo dauka gu konbentzitzeko. Adibidez, pentsamendu konstruktibistarekin.

Ni horrekin gauza batetaz ohartu naiz: Vigotskik esan zuena ez dugula ondo jaso. “Dena” erakustea akatsa omen zen eta beste muturrera joan ginen: haurrari ezer ez erakustera. Haurrari ez zitzaioala ezer erakutsi behar, berak deskubritu behar duela guztia defendatzen hasi ginen; materiala eman eta berak egin behar zuela deskubrimendua. Eta Vigotskik ez zuen hori esan. Gurasoek egiten dutenaren antzekoa egitea proposatu zuen berak. Amak badaki haurra non dagoen eta hurrengo pausotxo eskatzen dio haurrari, ez gehiago, ez gutxiago.

Euskal irakaskuntzaren ibilbidea ikusita, gatazkak eta eztabaidak bizitzea egokituko zitzaizun. Horietatik zein izan dira erabakigarriak?

Zarauzko ikastolarentzat bi gatazka izan dira erabakigarriak. Lehenengoa, orain dela urte asko, ikastola zatitzeko arrisku izugarria egon zen, batzuk esaten zutelako ezin zirela hezi gela berean sinestunak eta sinesgabeak. Izugarritzko gatazka eduki genuen eta azkenean bitartekarien bidez, haiek erabakitakoarekin egin genuen aurrera; denak batera heziz.

Bigarren gatazka eskola publikoaren Buesaren legearekin izan zen. 300 eta 200 arteko aldea izan zen gurasoen hautua eta azkenean ikastolak nortasun propioa mantentzea erabaki zen.

Izan genuen beste eztabaida bat ere gestioaren inguruan. Ordura arte gura-

soek eramaten zuten gestio guztia. Irakasleen iritziak zatitu egin ziren, baina azkenean elkarrekin parte hartzea erabaki zen.

Eta azkenik, ikastolak hartu berri duen erabaki garrantzitsu bat herriko frantziskotarrekin elkartzea izan da, Zarauzko gazteriari euskalduntasunean oinarritutako zerbitzua emateko.

Niretzat, lau erabakiak izan dira onak.

Zergatik? Zertan oinarritzen zara hori esateko?

Lehenengoari dagokionez, gaurko gizartean kultura eta pentsamendu desberdinak mahai gainean jarri behar direla planteatzen da, inork ez du esaten “desberdinak garelako, gu aparte”. Eta guk bide hori aukeratu genuen, errespetuan oinarritutakoa.

Bigarren goaren kasuan, uste dut publikotasunaren kontzeptua krisian dagoela. Publiko hitzak, denon gauza eta baten gauza desberdintzen ditu, eta hori, oinarrian ez dago krisian. Baina horrez aparte ematen zaizkion esanahiak kontuan hartuta, orduan krisian dagoela esan daiteke. Publikotasun kontzeptua berdefinitu egin behar da: publikoaren propietatea ez dauka zertan beti funtzionarioen bidez antolatutako gobernu batena izan behar. Eta propietateaz aparte, ikusi egin behar da zer zerbitzu ematen den, nolako interesa duen komunitatearentzat, zenbaten artean eraman daitekeen horren gestioa... Elementu horiek denek ekarriko dute publikoaren berdefinizioa.

Gestioari buruz orain irakasleak ikastolaren etorkizunaz jabetzen dira eta gurasoak arlo pedagogikoaz.

Eta azkenik, frantziskotarrekin elkartzearena, etorkizunari begira Zarauzko herriarentzat ona dela uste dut, ez dudalako interes pribaturik sumatzen, ez ekonomikorik, ez ideologikorik. Eta onura asko ikusten ditut etorkizunerako.

Musika irakasle izan zara. Zer funtzio du musikak heziketan?

Guk ikastolan kantuak landu izan

ditugu, eta hor, doinutik aparte, hitzak lantzen dira. Hitzekin gauza asko transmititzen dira eta antzinatik konturatu ziren pedagoak haurrei gauzak erakusteko zenbat balio zuen kantuak. Manolo Urbietaren eredu oso aberatsa izan da. Eta lehenagotik ere aita Donostiak planteatzen zuen zer garrantzi zuten haurren heziketan euskal kantuek, horien bidez euskalduntasuna eta herrimina transmititzeak. Horien ildoak jarraitu beharko genituzke. Nire ustez, musikaren irakaskuntzak batez ere euskal kantagintzak oinarrituta egon behar du. Hortik abiatu plangintza oso bat egiteko. Horregatik haserretu naiz ikastoletan ofizialki egin den musika plangintzarekin.

Zer ikusi diozu, bada?

Nire ustez ez dute eredu ona hartu. Ni azken 15 urtetan 10-13 urteko gazte txoei musika irakasten ibili naiz. Kantagintza landu dugu eta horrela, haurrek eta nerabeek musika egin dute. Beste gauza desberdin bat izan da, beste sentimendu eta bizipoz batzuei buruz aritu dira musikaren eta kantuaren bidez. Horrela planteatuta arlo ederra dela uste dut.

Baina ikasgai bat gehiago bihurtzen badugu, bere liburuekin eta notekin, ez dakit zenbat datu buruz ikasi beharrekin, izorratu dugu. Horregatik, nik beste aldeko apustua egiten dut. Aita Donostiaren eta Manolo Urbietaren il-

doen aldekoa. Iruditzen zait urte hauetan asmatu egin dugula gure ikastolan zentzu horretan planteatuta egon den musikagintzarekin.

Amaitzeko, zer eskatuko zenioke irakasle belaunaldi berriari?

Gauza bera eskatzen diet irakasle berriei zein zaharrei: haurrei begiratze-ko. Haurraren aurrean jartzean hari begiratu eta zintzoak izateko. Irakasleak zintzoa izan behar du, ahal duen zintzoena. Gurasoek beti egiten dute haurraren alde. Ahaztu egiten dituzte beraien interesak haurraren alde egiteko. Irakasleek ere gurasoen jarrera hori izatea oso ona dela uste dut. Ez da soilik haurrekin lan egitea soldatagatik edo asko dakidalako, baizik eta dauzkadan haur horien alde egitea. Hori da pedago izatea.

Haur hori urte batzuetan heldua izango da, eta prestatu egin behar da. Horregatik, haur horrek biharko gizartean zer arazo edukiko dituen pentsatzen saiatu behar da aurretik. Guk gero-kerik ere ez dakigu zer gertatuko den, baina zeozer sumatzen dugu, eta orduan, hori adierazi behar diogu zintzotasun osoz. Eta busti behar badugu, busti. Hanka sar dezakegu, baina normalean, zintzo jokatzen bada, ez da horrelakorik gertatzen. Hori da pedago on batekin egin behar duena: haurraren zuntzun, eta bizitzarako ongi prestatu. Arlo guztietan, ez bakarrik akademikoetan.

Maisua aurrean eta atzetik doa taldea Hamelingo txirulari bezain ona ta trebea. Haurrak goxatzeko era ezin izanda hobea astelehenean berriro ere jarrai ezazu ordea.

Bere lankideek egina



Energia Bizi erakusketa

200 m²-ko karpak Euskadiko 52 herritan barrena egin zuen ibilbidea iazko ikasturtean



Aritza ZORRAQUINO

EVE (Ente Vasco de la Energia) erakundeak antolatu zuen erakusketa ibiltaria. Helburua hauxe zen: karpapetik igarotzen zirenak sensibilizatzea energia modu egokian erabiltzeko urratsa eman dezaten, eguneroko bizitzan energia aurreztuz edota ustiatuz.

Bost gunetan banatzen zen karpak, eta informazioa oso modu ikusgarrian eskaintzen zuen: informazio taulak, maketak, simulazioak, jolasak, off-eko ahotsezko azalpenak...

Eskola taldeek bisita gidatuak izan zituzten aukeran, eta herriko edonorentzat egon zen zabalik karpak. 2004ko ekainean hasi zen herri herri, eta Euskadiko 52 herri bisitatu ostean, ekainean eman zion amaiera ibilbideari.



Bi urteko esperientzia honi buruz oso balorazio positiboa egin du erakusketaren koordinatzaileak, Aritza Zorraquinok: “Batez ere ikasleekin. Asteazkera zehar, egunean bost ikastalde etorri izan zaizkigu, eta ikasleak oso gustura egon dira”. Erakusketari hasiera emateko, bideo labur bat jartzen zitzaizkien ikasleei, energia berriztagarriari buruz. Ondoren, gaian sakontzeko, ibilbide bat egiten zuten karpako bost gunetara, dinamizatzailearen azalpenak lagun. Ariketa eta praktika batzuk proposatzen zitzaizkien gero, jolas moduan. Eta azkenik, denbora tartea uzten zitzaizkien beren kasa “kuxkuxea” ziztatan karpako bazterrak (informazio taulak, maketak, simulazio jolasak dituzte-eta aukeran).

Haurren artean arrakasta gehien izan duena: bioetxea

Sukaldea, komuna eta egongela zeuden karpako gunek batean. Eta etxetresna elektriko bakoitzaren gainean, kontsumo egokirako aholkuak. Bioetxea izan da haurrentzat erakargarriena suertatzen den gunea, hurbilekoa zailak: beren etxean zuzenean zer egin dezaketen ikusten baitute. Aritza Zorraquinoren esanetan, gainera, “haurrak dira etxean nola aurreztu gehien jakiten dutenak, eta beti gurasoen atzean daudenak esanez argia itzaltzeko edo kontu izateko urarekin”. Karpak hau gurasoek ere ikus eta ikas dezaten zabalik egon dago, zorionez. •

Haurrak dira etxean
nola aurreztu gehien
jakiten dutenak.
Karpa hau guraso-
ek ere ikas dezaten
zabalik dago.



Karparen barruan bost interesgune

1. ENERGIAREN HISTORIA. Informazio panelen bidez eta off-eko ahotsaren azalpenekin, gai hauek lantzen dira: haize indarraren erabilera, Erdi Aroko oletako edo siderurgietako uraren ustiapena eta energia forma berrien aurkikuntza, eta erregai fosilak.

2. ERREGAI FOSILAK ETA ENERGIA NUKLEARRA. Gaur egun gehien kontsumitzen ditugun energiak daude ikusgai: harrikatza, petrolioa, gas naturala eta energia nuklearra. Grafiko batek erregaion munduko erreserbak ere azaltzen ditu.

3. BIOETXEA. Gune honetan etxe arrunt bat dago muntatuta, eta aholkuak ematen zaizkigu eguneroko jardunean energia aurrezteko eta kontsumo egokia egiteko. Etxeko argiak, ur beroa eta berokuntza nahiz etxetresna elektrikoak nola erabili azaltzen da bertan.

4. ENERGIA ERAGINKORTASUNA. Simulazioen bidezko hainbat jolas daude gune honetan, garraio bideetan eta eraikinetan energiaren zentzuzko erabilera zein den lantzeko.


5. ENERGIA BERRITAGARRIAK. Maketa ederren bidez, informazio panelen bidez eta proiektzioen bidez, energia berritagarriok lantzen dira: biomasaren energia, energia hidroelektrikoa, eguzki energia, itsasoaren energia, energia geotermikoa zein eolikoa. Egun Euskadin dagoen energia estrategia ere azaltzen da, energia berritagarriak sustatzeko dauden dirulaguntzen programak zehaztuz.

esperientziak

Begiratu eta irudikatu

Artistak eta ikasleak batu dituen erakusketa

612+13 artistaren lanak egon ziren erakusgai Lizarrako kultur etxean maiatzean. 612 artistak Lizarrako ikastolako ikasleak ziren, eta gainerako 13ak Euskal Herriko artista ezagunak. Ikasturtean garatutako proiektu batek elkartu zituen denak, eta emaitza “Begiratu eta irudikatu” erakusketan ikusi zen.



Begiratu eta Irudikatu

Lizarra Ikastola



Erakusketa bizia, koloretsua eta berezia izan zuten ikusgai maiatza osoan Lizarrako herritarrek. Alde batetik, Euskal Herriko 13 artista ezagunen lan bana zegoen, eta bestetik, ikastolako ikasleek lan horien inguruan egindako interpretazioak edo artelan berriak. 2 urteko haurrek izan ezik, ikastolako ikasle guztiek hartu zuten parte proiektuan, 3 urtetik 16 urtera artekoek. Ikasleak gustura sentitzen ziren euren lanak artisten lan originalen parean ikusita. Eta artistak ere bai, euren lan eta ideietatik zenbat obra berri sortu ziren ikusita.

Aniztasuna zen nagusi erakusketako hiru aretoetan. Artisten artean 100 urteko artistak eta artista gazteak zeuden, batzuk euskal kulturaren ezagunak

eta beste batzuk hasiberriak. Lanak ere denetarikoak ziren: figuratiboak, abstraktuak, espresionistak, eskulturak... Ondorioz, ikasleen erantzuna ere oso oso zabala izan zen; ez mailaren eta artistaren arabera soilik, artista eta obra berak ere begirada eta espresio modu askotarikoak sortu zituen ikasleengan.

Ideia jatorria

Josu Reparaz Lizarrako ikastolako zuzendariak koordinatu zuen erakusketa eta proiektua, eta ideia nondik norra sortu zen azaldu digu: “2004an Nafarroa Oinez Lizarran ospatu genuenean, 85 artistaren lanekin osatutako erakusketa bat egin genuen. Tartean Nestor Basterretxea zegoen, eta harekin hiz-

ketan ari ginela hauxe esaten zuten: egokia ikusten zuela horrelako erakusketak egitea, baina beti artisten lanekin eta helduei begira egiten zirela, eta ez zirela iristen ikasleen geletara, ez zirela haiengana hurbiltzen. Horregatik, bere obrak edo beste batzuenak ikasleek ikustea nahiko zukeela zioen, haurrek interpretatzeko eta zer sortzen zien ikusteko. Haurrak ere artearen ikaskuntzan eta kontenplazioan inplikatzeari egoki ikusten zuten”.

Hortik sortu zen ideia, eta Josu Reparaz zenbait artistarekin harremanetan jarri zen. 12k berehala eman zuten baiezkua. “Hamahirugarrena, Francis Bartolozzi, iaz hil zen 100 urterekin. Nafarroan oso artista garrantzitsua izan da, batez ere haurren mundu plastikoa eramanean zuelako bere mihiseetara, eta beti saiatu zelako haurrek bezala margozen. Oso emakume sentikorra zen, eta egoki ikusi genuen proiektu honetan haren lan bat egotea. Familiarekin jarri ginen harremanetan eta oso jarrera baikorra agertu zuten hasiera-hasieratik”.

Artista bakoitzak obra bana eman zien ikastolakoiei, bere lanen artean nahiko adierazgarria zen bat. Maila bakoitzak artista baten lana hartu zuten, eta hor abiatu zen artistaren eta ikasleen arteko erlazioa. 3 urtekoek, adibidez, Jose Luis Zumetaren koadro bat eduki zuten gelan, Lehen Hezkuntzako 4. mailakoek Juan Gorritiren eskultura bat, eta DBH4koek Dora Salazarrena.

Ikasleek obra gelan eduki zuten, ikusi egin zuten, ukitu... Egilearen bizitzari eta lanari buruzko gauzak kontatu zitzaizkien. Eta ondoren, nahi zuten teknika erabiliz, lan horrek esaten ziena adierazten saiatu ziren. Haur bakoitzak hunkitu edo harritu duena agertzen da bere lanean; haur bakoitzak sentitu duena kontatzen edo transmititzen du bere obrarekin. Batzuek originalareki-



ko fideltasunari eusten saiatu dira, eta beste asko gauza erabat berria eta desberdina egiten saiatu dira. “Adibiderik garbiena Nestor Basterretxearen “Hiri zuria” obra da. Artistak hiria zuri-beltza ikusten du, eta ikasleen artean gutxik egin dute zuria, koloreak sartu dituzte. Haurrek mundua koloretan ikusten dute eta hori erantzun diote artistari”.

Prozesua bera izan da interesgarria

Martxoan jaso zituzten obrak eta apirila bitartean aritu ziren lan honetan. Kasu batzuetan bi ordutan amaitu zuten euren obra, eta beste batzuetan denboragehiago behar izan zuten. “Prozesu osoan izugarri inplikatu ziren. Izan ere, artelana gelan edukitzea, beraiengandik hurbil, oso polita izan da eta asko bizitu dute hori dena” dio zuzendariak.

“Orain ikasleen obrak mutu ikusten ditut eta pena da emaitza soilik ikustea, ez prozesu osoa. Irakasleek ere gauza bera diote”. Izan ere, esperientzia honetan garrantzitsuena lan horiek egin aurretik bizi izan duten guztia izan da. Denak ez dira deigarriak edo begira jotzeko modukoak, baina atzean izugarriko lana dute, eta hori da irakasleek baloratzen dutena. “Ikasleek egin dutena zergatik egin duten kontatzen dutenean, orduan hartzen du benetan zentzua lanak. Eta hori guretzat oso-oso polita izan da. Ikasleek bizitu eta adierazi egin dute”. ●



Maila

Artista

Artelana



3 urtekoak

Jose Luis ZUMETA

Izenbururik gabea

Haurren lanak oso adierazgarriak dira eta Zumetaren lanak horretarako jokoa ematen du: kolorearen erabilera, espresioa, askatasunaren erabilera... Haurrek egiteko moduko obra aukeratu zuten eta kolorearen hurbiltasuna landu.


4 urtekoak

Juan SUKILBIDE

Garraiobideak



Maila honetan garraiobideak lantzen dira: airekoak, lurrekoak... Artelan hau haurren mundutik oso gertu dago. Haurrek teoriarik bazekiten zer diren garraiobideak eta zer garraio dauden. Lan honek ezagutza horri ikuspegi estetikoak gehitu zien.



5 urtekoak

Mª Jose REKALDE

Hirian


Maila honetan hiria lantzen da, eta lan honek hiriaren beste ikuspegi bat planteatzen duelako aukeratu zuten obra hau. Koadroan etxeak daude, jendea dago... collage bat da, eta azken finean, hiri bat ere hori da, collage bat.

LHko 1. maila

Jesus Maria BEA

Vicky

Koadroan haxe ikusten da: haur batek marraztutako Vicky bikingoaren irudi bat. Hor zegoen erakargarritasuna, eta haur guztiek ikusi zuten irudi hori.



LHko 2. maila

Jose Ramon AMONDARAIN

Izenbururik gabea

Obra honetan margolari bat ikusten da eta margolari izateak zer esan nahi duen hausnartzeko baliatu zuten: nolakoa den margolariaren lanbidea, zer elementu dituen margolari batek; bihotza, paleta, eskua... eskua zikindu daitekeela, alkandora zikina daukala...

LHko 3. maila

Nestor BASTERRETXEA

Hiri zuria

Artistak hiria zuria ikusten du, eta haurrek koloreak sartu zituzten. Helduek eta haurrek ez dute berdin ikusten ez hiria eta ez mundua. Haurren sentimenduak eta ikuspegia ederki islatu ziren.



LHko 4. maila Juan GORRITI

Oteizaren omenez

Juan Gorriti Jorge Oteizarengana joaten zenean honek hala esaten omen zion berarekin egoten zen Begoñari:


- Begoña, atera itzazu aulki batzuk hauentzat.

Eta Begoñaren erantzuna beti bera izaten omen zen:

- Baina, Jorge, bi baino ez dauzkagu-eta: zu eserita zauden hori eta ni eserita nagoen hau!

Horregatik, Gorritik "ezinezko aulkiak" deitu zien eta 13 egin zituen, Oteizaren Arantzazuko apostoluak bezala.

Gelan eta erakusketan bi eduki zituzten, eta ikasleek hainbat material birziklatuz egin zituzten aulkiak. Joko handia eman zuten obra izan zen, eta Gorritiren barruko haurra bizirik dagoela ikusi zen.



LHko 5. maila Francis BARTOLOZZI

Sarasate pasealekuan

Emakume sentikorra izan zen eta haurren marrazteko modua eta mundu plastikoa eraman zituen bere mihiseetara. Horregatik, proiektu honetarako egokia iruditu zitzaion.

LHko 6. maila Florencio ALONSO

Obrarik abstraktuena eta zailena.

Lanaren konplexutasunagatik

aukeratu zuten.

AW50 erdigune ikusezina



DBHko 1. maila Jose Ramon ANDA

Romeo eta Julieta




Pieza kurioa da eta izena Oteizak jarria da. Anda bere etxeko ateetako heldulekuak egiten ari omen zen eta Oteizak ikusi zuenean, "Ai... ze polita, Romeo eta Julieta" esan omen zuen. Orduan eskultura moduan geratu zen eta izen hori jarri zion. Adin honetan, nerabezaroaren hasieran, lehenengo maitasun istorioak hasten dituzte gazteek eta oso iradokitzailea iruditu zitzaion eskultura hau, gazteek zer ikusten zuten adierazteko.

DBHko 2. maila Faustino AIZKORBE

Makla

Nafarroan oso ezaguna den eskultore honek makla bat planteatzen du joko moduan: hirukiekin egindako zatiek hexagono bat egin zuen. Modulu batzuk uztartuz eta konbinatuz, beste irudi geometriko batzuk atera daitezke. Adin honetan izugarritzko joko eman zuen; interpretazio asko egon ziren, originalarekiko oso desberdinak. Elaborazio prozesua oso aberatsa izan zen.



DBHko 3. maila Antonio ESLAVA

Divina Comediako infernuaren XXII. kapitulua




Literaturako eskolan pasarte hori irakurri dute, deabrua eta infernua agertzen direna. Mundu hori oso gertu dago nerabeengandik eta bi ikuspegi ikusi dituzte: idatzitako artea eta arte plastikoa.

DBHko 4. maila Dora SALAZAR

Gainean hegan egin

Egiteko nahiko konplexua den obra da. Eskultura ikaro bat da eta hegan egiteko prest dago. Nerabeek askatasun gogoia izaten dute adin honetan, eta euren psikologiatik hurbil dago. Horrez gain, adin honetan gai dira alanbrearekin lan egiteko..



Busturialdeko Eskola Txikiak

BUSTURIALDEKO ESCOLA TXIKIETAKO
ZUZENDARIAK ETA IRAKASLEAK

Azkeneko bi urteetan Busturialdeko lau eskola txikiek jaialdi bat antolatu dute udaberri aldera, hainbat helburu lortu nahian. Arteagako Montorre, Busturialdeko Ucelay, Muxikako Urretxindorra eta Mundakako Ikastetxe Publikoa dira eskola txiki horiek. Gure herrietako eskolentzat garrantzitsua den ekitaldia aprobetxatuz, gizartearen aurrean hainbat asmo eta gogoeta aldarrikatu beharrean gaude.

Zaila izaten da eskolarik gabeko herri bat irudikatzea, ikastetxea herri baten arima delako. Ikastetxe horiek duten berezitasun edota ezaugarri nagusia ikasle kopuru murriztuak dituzte. Eskola horietan ez da egoten adin bakoitzeko ikasle nahikorik gela bana izateko, eta gela bakoitzean adin desberdineko ikasleak bildu behar izaten dira. Herri txikietakoko eskolen kontra erabili izan diren argudio nagusiak hezkuntza kalitateari eta ekonomiari lotu izan zaizkio. Alde batetik, kalitatearen inguruan planteatzen den kezka nagusia ikasleen aniztasuna da; alegia, nola moldatu gela barruan adin desberdineko ikasleekin ikaste-prozesu egokia lortu ahal izateko. Gaur egungo eskolan, talde lanaz, pedagogia aktiboaz, balioez eta aniztasunaz hitz egiten da. Horretan oinarrituta, eskola txikia eskola modernoa da. Ikaste prozesuan aniztasun horrek aberastasuna dakar, eta ez da ikusi behar oztopo gisa edota gurasoen kezka moduan. Askotan fa-



miliak arduratuta egoten dira euren seme-alabek eskola txikietan ikasten badute, batzuen iritziz, horrek eragina izan dezakeelako etorkizunean. Horien ustez, eskola txikietan hezitako haurrek etorkizun hurbilean sozializazio gaitasun gutxi izan dezakete. Baina uste hori saihestu egin behar da, arlo horri dagokionez eskola txikiek gainerako eskolek bezalako lorpenak edukitzen baitituzte. Batzuek eskolaren kalitatea tamainaren arabera neurtzen dute, eta ez, eskolaren kalitateak ez dauka zerikusirik bere tamainarekin.

Batzuek uste dute, eskola txikietan haur gutxi elkartzeak, gerora haur horiek gizarteratzeko beharko dituzten gaitasunetan eskasia eragin dezakeela. Bada, kezka hori izan dezaketenei honako hau ohartaraz diezaiekegu: guztiz kontrako lorpenak eskuratzen direla, eskola txikietan sortzen den egoera naturalaren ondorioz. Izan ere, eskola hauetan haur helduenek hartzen dute naturalki haur txikiak zaindu, gidatu eta babesteko ardura, neba-arreba txikiagoei garai bateko senide askoko familietan ematen zitzaizen arreta berbe-

rarekin. Haur txikiak, helduenen ereduak hartzen dituzte eta, haien arteko harremanak eta jokoak ahalbidetzeko erabili behar dituzten mekanismo guztiak martxan jartzeko gaitasunak sakondu eta aurrera egiteko aukera gehiago izaten dute. Eskola txikietan haur nagusienek gazteenei erakusten diete, eta gaiak azaldu behar horrek edukiak hobeto menderatzea eskatzen die ikasleei. Gainera, haurra bera non egongo da hobeto bere ikasle bizitzako lehen urteetan bere ingurunean bertan baino? Pertsona guztiontzat, eta haurrentzat gehiago, oso garrantzitsua da gertuko erreferentzien baitan garatzea bere ezagutza eta nortasuna. Beraz, ikasle asko ez izatearen desabantaila ongi baino hobeto osatzen du egunero ariketa hezitzaile eta aberasgarri horrek. Urte askotako esperientziak baieztatzen digunez, hamabi urterekin, hurrengo eskolara iristean, haur hauek ez dute inolako arazorik izaten lagunekin elkarbizitza oparoa gauzatzeko edo beste esparru batzuetan bizi eta hezitako haurren mailako emaitzak lortzeko.



Urteekin eskolen egoera nabarmen hobetu da, prestigioa irabazi dute eta zerbitzu berriak zabaltzen dituzte. Eskoletako irakasleen artean harremanak sendotu dira, eta baita ikasleen artean ere. Komunikazio teknologia berriek aldaketa asko bideratu dituzte eskoletan. Espezializazioari eta hornikuntzari lotuta egon daitezkeen kezka uxatu beharra dago. Eskola handi zein txiki, espezialista berberak daude (musika, ingelesa, hezkuntza fisikoa, aholkularia, laguntzailea, etorkinen hizkuntza indartzeko irakaslea, logopeda, heziketa bereziko irakaslea eta abar). Eta hornikuntzari dagokionez, eskola handien egoerarekin konparatuz gero, ez dago desberdintasun handirik. Eskola txikietan baliabide gutxiago dagoen arren, horiek erabiltzeko aukera gehiago ere badago; jantokiak antolatzen, garraio egokiak bilatzen, haurtzaindegiak moldatzen eta eskolaz kanpoko jarduerak bultzatzen gabilta etengabe eskola txikietan. Eskola txikietan estamentu guztien artean dagoen hurbiltasunagatik, edota hobeto esanda, arreta zuzenagatik, sortzen diren harremanengatik, haurren aniztasunari eman ahal zaion trataeragatik, erabiltzen diren didaktika aurrerakoienagatik, eta abarregatik, eskola horiek kalitate handikoak direla esan dezakegu.

Gure ikastetxeak guztiz integratu-

rik daude herriko bizitzan, haur, guraso eta herritarren artean harreman estuak sortuz. Horretarako, urtean zehar hainbat ekitaldi, ospakizun eta jaialdi burutzen dira: Gabonak, inauteriak, lehiaketak, proiektuak, irteerak elkarrekin, jolas kooperatiboak eta abar. Orain arte egindako bi edizioetan arrakasta izan dugunez eskolen arteko giroaren aldetik, eta eskola txikienentzat gure arteko elkarlana ezinbestekoa denez, Busturialdeko Eskola Txikietako Jaialdi garrantzitsu honen antolakuntzari irrikaz ekingo diogu, urte askotan jarraipena izan dezan. ●

HAMARREKO HANDIA

Doinua: "Txepetxa".
edo "Mutil koxkor bat"

Busturialdeko neska-mutilak gabilta ikasi nahirik horretarako gure ahaleginak sarri ez daude alperrik famili giro gure artean adin guztiak nahasirik herri hauetan eskola barik ez dago zer eginik eskola txiki zabalik eta herri txikiak bizirik eskola txiki zabalik eta herri txikiak bizirik



Zein da gorputz hezkuntzako irakasleen funtzioa? Zein dira landu behar diren gutxieneko edukiak? Horrekin lotuta, zer iritzi duzu Soin Hezkuntza arloan Euskal Curriculumak hartu duen bideari buruz? Betetzen al dira gutxieneko horiek?



Galdera hori Natur Zientzietako irakasleei egingo bagenie, erantzunak bi zati edukiko lituzke: batetik, gaurko neska-mutilek Natur Zientziez jabetu behar dutela, egun duen garrantziagatik, eta bestetik, eskolan ikasten dituzten azturak hezitzailetzat ere hartzen ditugula, etorkizunerako oso lagungarriak direlako. Horiek horrela, Natur Zientzietako irakasle batek menperatu behar dituen eduki arloak bi dira: batetik, hezkuntza, irakasleak haurren heziketan jantzia egon behar du; eta bestetik, Natur Zientziak berak, Natur Zientzietan aditua izan behar du.

Gauzak horrela ikusita, Soin Hezkuntzak eta Natur Zientzien “Hezkuntzak” ez lukete desberdintasun handirik izan behar. Galderari erantzuteko, “Soin Hezkuntzaren” izenburuari jarraitzea nahiko izan beharko genuke: lehenik, soinak edo gorputzak duen garrantzia gure gizartean aurkeztea, eta beraz, irakasleak zientzia arlo horretako aditua izan beharko du; eta bigarren, aztura hezitzaileak garatzea. Natur Zientzietako irakaslearen gisara, bi arlo zientifiko menperatu beharko lituzkete Soin Hezkuntzako irakasleek: soinaren edo gorputzaren arlo propioa eta hezkuntzarena.



Joseba ETXEBESTE

SOIN HEZKUNTZAKO LIZENTZIATUA ETA DOKTOREA

Indarrean dagoen OCDak Soin Hezkuntzako irizpide nagusiak gorputza eta mugimendua direla dio, eta horrela, gorputzaren eta mugimenduaren hezkuntza bultzatu nahi du. Baina... gorputza eta mugimendua hezigarriak al dira?

Erantzuna ezezkoa da: gorputza eta mugimendua ez dira hezigarriak, pertsonak, aldiz, bai. Matematika, Gizarte edo Natur Zientzietako eskoletan ez dira burmuinak —gorputzaren zati bat— hezten, nahiz eta ikasle bakoitzak bana eduki. Ikasleen jokabideak dira hezigarriak, bai Matematikan eta baita Soin

Hezkuntzan ere: ez gorputza, eta ezta mugimendua ere. Horrela, Soin Hezkuntza “jokabide motorren hezkuntza” bilakatzen da; eta galderari erantzunez, irakasleen betebeharra neska-mutileen “jokabide motorrak” heztean datza.

Bigarren galderaren erantzuna konplexuagoa da

Gure eskoletan zer landu behar dugun galderari erantzutea konplexuagoa da, bultzatu nahi ditugun jokabide motorrak zein diren jakin behar dugulako. Kezka honako honek sortzen du: zer hiritar mota eraiki nahi den. Eskolan, ideologia eta giza testuingurua kontuan izanik, hezitzaileek hainbat aukera dituzte: lankidetzaren edo lehia-kortasunaren lantzea, norbanakoa edo taldea bultzatzea, hezikidetzaren edo sexu bazterketa sustatzea, aurreztearen edo kontsumoaren garatzea... Soin Hezkuntzako irakaslea lehia-kortasuna garatu nahi duen eskola batean balego, lehia izango luke jokabide motorren irizpide; hau da, kirola eta jokoa izango lirakeke eduki nagusiak. Aldiz, elkartasuna bultzatu nahi izanez gero, natur jarduerak eta jolasak landu ditzake, lehia baztertzeko baitute. Ez dago, bada, denontzat ona den gorputz heziketa

bakarrik, ideologia desberdinek jokabide desberdinak bultzatzen baitituzte. Gizarte askotarikoan “soinketako” eskolak ere askotarikoak dira.

Horrela, heziketa bakarra egitea ezinezkoa denez, zer zentzu du gizarte demokratiko batean hezkuntza legez arautzeak?

Hezkuntza arautzearen arrazoia oinarrizko gizartearen elkartasuna lortu eta hiritar-ikasleen eskubideak bermatzea da. Ondorioz, legeak gutxieneko espirituarekin jaio behar du: batetik, gizabanakoen eskubideak bermatu behar ditu, baina beste alde batetik, eskola bakoitzak duen ikuspuntua aurrera eramateko aukera eman behar du.

Demokrazian oinarritutako gizarte-ko eskoletan haurren eskubideak dira bermatu beharreko gutxienekoak. Nazio Batuen Erakundeko haurren eskubideen adierazpenean bi dira, nire ustez, Soin Hezkuntzarekin loturik bermatu beharreko haurren eskubideak: lehena, ikasleak euren ezaugarrietatik baztertuak ez izatea da, eta bigarrena, haurrek jolasteko eta jokatzeko duten eskubideak gozatzea.

Baztertua ez izatea lortu behar da, bai modu “mikroan” eta bai “makroan” —eskolan eta gizartearen—; hau da, ikasle neska-mutilen taldean onartua izatea, eta eskolan ikasitakoa gizartearen onartua izateko baliagarria gertatzea; eta hori dena joko eta jolasekin gozatuz.

Printzipioz, ikasleak gizarteak eskaintzen dizkion joko-jolasetan aritzeko eskubidea du, joko-jolasez gozatze-ko eskubideak ez baitu mugarik: soka saltoan aritzeko plazeraz gozatze-ko eskubideak edonork eduki behar du, baita futbolekin jardun nahi badu ere, edo beste hainbat jardueratan.

Soin Hezkuntzako eskoletan, kirol joko eta jolasen bitartez, eskubide horiek gauzatzeko posibilitatea dugu. Baina eskola ez da norberaren gustua betetzeko gunea, eskubideak bermatzeko lekua baizik. Eskubide hori bermatzerakoan, irakasleak joko-jolas konkretu batzuk hautatu behar ditu. Irakaslearen ardura aukeran dituen joko-jolasetatik esperientzia desberdi-

nak bultzatzen dituztenak hautatzea da: plazer diferentea ematen dutenak. Baina nola jakin bi jarduera desberdinak diren? Edo beste modu batean esanda, nola jakin bi jarduera antzekoak diren?

Dudarik gabe, bi jarduera motor ez dira berdinak euren araudia eta betebeharrak desberdinak direnean; teknikoki esanda, euren “barne logika” bestelakoa denean: pilota ez da soka saltoa, eta soka saltoa ez da futbola.

Modu honetan, jarduera motorrak taldeka ditzakegu euren barne ezaugarriak antzekoak direnean. Eskubaloiak, saskibaloiak, marro-marrokak edo “brileak” garatzen duten gozame-na edo plazer antzekoa da, euren egitura antzekoa baita: bi taldeen arteko lehia zuzenak ematen duen plazeraz gozatzea. Honela sailkatzean eta taldekatzean, irakasleak modu errazean hauta ditzake jarduera motor diferenteak, plazer desberdina duten jarduerak. Hau da irakaslearen betebeharrak nagusietako bat: jarduerak ondo hautatzea, hor baitago bere eginbeharraren erdia eta ikasleen eskubideen bermea; horretarako, barne logikaren irizpidea gaindiezina da.

Bestalde, Soin Hezkuntzako irakasleak ikasleari plazer askotarikoez gozatzeko aukera ematea ez da nahikoa, ikasle guztiak gozatu beharko dute aukera horietaz, baita “baztertutakoek” ere: soka-saltoan gizonetakoak dira neska-mutilen irainen helburu, eta boxeoan, aldiz, emakumezkoak. Onartuak izateko helburua lortzeko, ezinezkoa da baztertuen eta baztertzailen arteko bereizketa egitea. Ikuspuntu hori aldatu beharrean gaude, denok baztergarriak garela onartzeko —E. Goffman-ek estigmatizazio deritzo—. Irakasleek printzipio horri jarraitzea ezinbesteko irizpidea da, ikasle guztiak baitute euren ezaugarri pertsonalengatik baztertuak ez izateko eskubidea. Laburbilduz, gorputz hezkuntzako gutxieneko helburua hau da: jarduera motorren plazer askotarikoak eskaintzea eskoletan, ikasle anitzek gozatze-ko aukera eduki dezaten.

Hau da irakaslearen betebeharrak nagusietako bat: jarduerak ondo hautatzea, hor baitago bere eginbeharraren erdia eta ikasleen eskubideen bermea.



Kontzeptuzko, prozedurazko eta jarrerazko edukiak Soin Hezkuntzan

Argi dago Natur Zientzietako eskoletan izango duten gutxieneko helburua ez dela Soin Hezkuntzakoaren modukoa, irakasgai bakoitzak hiritarregan arlo desberdinak garatzen baititu. Baina ez da hori bien arteko alde bakarra. Natur Zientzietan kontzeptuzko edukiak dira programazioaren ardatz nagusia, kontzeptuak ikastea da oinarritzakoa. Soin Hezkuntzan, berriz, prozedurazko edukiak dira ardatz printzipiala: jarduera motorretan aritzen jakitea da koska, pilotan jokatzeko, alegia.

Irakasle batek ikasleei pilota jokoa aurkezterakoan, haurren jokabide motorrak aurrelantz dituzte, hau da; bi ikasle beste biren kontra lehian arituko dira. Irakasleak alde aurretik jakin dezake zer-nolako jokabideak bultzatuko dituen aukeraturako jarduerak motorrak. Modu horretan, jarrerazko edukiak ere aurredefinitzen dira: laguntasuna garatuko dute taldekidearekin eta lehiakortasuna beste partaideekin, besteak beste. Kontzeptuzko edukien barnean, pilotaren araudia jakitea ezinbestekoa da, ezinezkoa baita hori jakin gabe pilotan ondo aritzea. Prozedurazko edukien plangintza egiterakoan, jokabide motorren plangintza egiten ari gara.

Halere, argitu gabe dago oraindik zer-nolako jokabide motorrak diren gutxienekoak euskal hiritarrentzat. Beste modu batean esanda, ea eskole-

Gorputz hezkuntzako gutxieneko helburua

hauxe da: **jarduera motorren plazer askotarikoak eskaintzea**



eskoletan, ikasle anitzek gozatzeko aukera eduki dezaten.

tan egiten dena gizartean onartua izateko balagarria den. Horrek bete-betean jotzen du hezkuntzaren zereginen: haur euskaldun bat heldu euskaldun bihurtzeko prozesuan. Jokabide motorren plangintzak bide horren sistematizazioaren iparorratza izan behar du. Euskaldunek, Europako herrien pareko, etxea dute munduaren erdia. Horrela, europarren mundua etxekoen eta kanpokoen artean banatzen da, eta horien euskarriak jokoak eta jolasa dira. Jokoa, euskaldunok kanpokoen aurrean dugun jokabideen erdua da, eta bere balio orokorra “irabaztearen plazerak” laburbiltzen du. Bestalde, jolasak etxekoen arteko jokabideen erdua adierazten du, eta “elkarbanatzearen gozamenen” oinarritzen da. Jokoen eta jolasen bidez ikasten ditugu gure gizartearen jokabideak, egiten dugunaren esanahia; gizartekotzearen oinarriko zutabeak dira.

Gutxieneko edukitzat hartu behar da eskolan euskal jokoak eta jolasak erakustea, ez soilik joko eta jolasen garrantziagatik, baizik eta horiek gizartearen jokamoldeak erakusten dituztelako: gure kulturaren kosmologia. Euskal Herrian biziko diren hiritarrek, etorkinak barne, beharrezkoa izango dute hemengo ohiturez jabetzea, nahiz eta euren ezaugarri pertsonalak askotarikoak izan. Eskubide gisa onar daiteke etnomotrizitatea, ideologia bateratzaile gisa. Hezkuntza araudien gutxienekoak betetzeko, batetik norbanakoa-ren eskubideak gorde behar dira, eta

bestetik, oinarriko gure gizartearen ezaugarriak onartu, *nekez uzten baitu elurrak zuritiesuna*.

Euskal Curriculumaren gaur egungo dema, eskolei eta proiektu hezitzaile bakoitzari, gizarteak zer-nolako malgutasuna eman behar dion definitzea da, gizarte proiektu askotarikoak bultzatzeko aukera nahikoa izan dezaten.

Soin Hezkuntza arloa Euskal Curriculumean

Hirugarren galderari helduz: zer iritzi dut Soin Hezkuntza arloan Euskal Curriculumak hartu duen bideari buruz? Betetzen al dira gutxieneko horiek?

Nire ustez, ikasletoetan eta ikastetxetan eztabaidan dagoen testuak ez du horretan laguntzen. Lehenago argitu dudanarekin lotuko dut egiten diodan kritika.

Gorputza eta mugimendua, XIX. mendekoak diren kontzeptu zaharkituak, oraindik testuan agertzen dira: jarrerazko edukiak, alde batetik, eta prozedura eta kontzeptuzkoak, bestetik, banaturik agertzen direnean. Hori barbaezina da. Jokabide motorrak modu bateratuan lantzen ditu hiru eduki mota horiek; banaketa teorikoa da. Egia da jokabide motorren ikuskera oso argi agertzen dela Euskal Curriculumaren sarreran; baina ez da nahikoa, irizpide nagusia izan behar du.

Horren ondorioa hauxe da: Euskal Curriculumak ez duela argi adierazten prozedurazko edukien nagusitasuna: Soin Hezkuntzan eduki garrantzitsuen ariketa egitea da. Hori egiten ez bada, gure irakasleek euren burua galtuta ikusiko dute, eta askotan, azterketa idatziak egitera edo etxerako lanak bidaltzera behartuta sentituko dira, gure betebeharratik at joatera. Ondorioa hori soilik izango balitz ez nioke garrantzi handirik emango. Baina banaketa horrek adierazten duena zera da; irakasleak eskaintzen dituen prozedurazko eta jarrerazko edukiek loturirik ez dutela. Berdin diola boxeoa, soka saltoa, futbola, harrapaketa, txorromoroka, mendi irteera edo atletismoa egitea, denek jarrerazko eduki berberak landu

ditzakutelako. Banaketa hori ez da arazo formala soilik, gorputz hezkuntzarako gure betebeharrak suntsitzen dituen eta zientziatik banatzen gaituen muga da. Ez da Pariseko Sorbonan ikasi behar konturatzeko irakasleak mendi irteerak eta errugbia eskaintzen baditu, nesken eta mutilen arteko harremanak eta jarrerak aldatu egiten direla. Jarduera ezberdinek ez dituzte jarrera berberak bultzatzen: jokoak eta jolasak ez dituzte balio berberak.

Bestalde, baina horrekin bat, eduki blokeak nahastuta agertzen dira. Hau da: harrapaketa jolasa “nork bere buruaren ezagutzako, nork bere buruaren kontroleko, komunikazio motorreko, osasuneko, etnomotrizitateko eta ludikotasuneko” -euskal curriculumean agertzen diren blokeak edukia izan daiteke. Beste modu batera esanda, harrapaketa jolastea ikasleak bere burua ezagutzeko eta kontrolatzeko balagarria da, komunikazio motorrean sozomotrizitatea lantzen ere bai, harrapaketa ariketa ere osasungarritzat hartu behar dugu; euskal kulturarekin lotuta dago, euskal jolasa delako; eta jolasaren ludikotasuna bultzatzen du. Nola demontre antolatuko dute irakasleek zentzuzko programazioa egoera honetan? Aukera bakarra soin heziketa teorikoa, kontzeptuala, egitea da eta hori da euskal curriculumak hartzen duen bide arrisksua: mugimendurik gabeko soinketa bultzatzea: onartu ezineko egoera!

Beste kezka bat irakaslearen iritzia biltzeko sistematan datza. Soin Hezkuntzan ditugun egiturazko arazoek ez dute eztabaida modu argi batean adierazten uzten. Gauzak argi ez badaude, zaila da iritziak biltzea. Jokabideen heziketa bideratzeko, argi eduki behar da mugimendua eta gorputza ez direla gure edukiak eta prozedurazko edukiak direla gure programaketaren euskarria. Hori guztia ulertzea urte luzeetako lana da, ezinezkoa da dokumentu bakar batekin aldatzea. Halere, Euskal Curriculum indarrean dagoen OCDA baino hobea dela deritzot. ●

Bide eginean jarraitzen dugu zuen
ekarpenekin eta parte-hartze
handiagoarekin aberastu nahi dugularik.



Hik Hasi proiektua irekia
den heinean, interesa duen edonoren
parte-hartzea gustu handiz hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxo euskal
hezkuntzaren
aldeko ekimen honetan.

urria

berriak

Elhuyarrek *Hiru mosketariak* bideojokoa argitaratu du

Hiru dimentsioko irudiak erabiltzen dituen euskarazko lehen plataforma jokoa da. Teknologia berriak, euskara eta abentura uztartzen ditu D'Artagan eta hiru mosketarien istorioan oinarriturik.

1972. urtean sortu zenetik, Ellhuyar fundazioak ekarpen handia egin du zientzia eta euskara uztartzeko bidean. Zientzia eta teknologia gizarteratuz eta hizkuntzaren normalizazioa bultzatuz, material asko atera du fundazioak.

Lehenengo CD-ROMa 1994an kaleratu zuen, *Ezagutu Gipuzkoa* izenburuarekin. Ordutik, 20 CD baino gehiago argitaratu ditu, gai orotarikoak eta batez ere, gaztetxoei zuzendutakoak. Baina oraingo honetan, jauzi kualitativoa eman du, eta punta puntako teknologia duen bideojokoa kaleratu du. "Hiru dimentsiotako irudiak dauzka, erakargarria izateko eta, era berean, bi dimentsiotakoa ere bada, erabiltzeko erraza izateko, gaztetxoenei zuzendua dagoelako", esan digu Danel Salaberria

jokoaren arduradunak. Zehazki 7-10 urte arteko adinera egokitzen da bideojoko hau. Izan ere, 10etik aurrerako bideojokoetan hizkuntzak garrantzia galtzen du.

Gazteen aisialdian bideojokoek espazio dexente betetzen dute, baina horien artean, euskarazko eskaintza minimoa da. "Bideojoko bat geuk sortuz gero, zaila da beste bideojoko batzuekin lehiatzea, merkatuan denetik dagoelako eta gauza oso garatuak; baina euskaraz ez. Puntu honetan, euskarazko softwaregintzak sekulako erronka dauka: euskarazko joko erakargarriak kaleratzea azken boladako bideojokoetan jolastera ohituta dauden gaztetxoentzat", esan digu Danelek. Eta hala, hutsune hau betetzera dator hiru mosketariak jokoa.

Euskarazko bideojoko bat kaleratzea erabaki zutenean, merkatuari begira jarri aurretik, irizpide batzuk argi ziztuzten; hala nola adinari egokitzea eta, era berean, gainontzekoentzat, haur zein heldu, erakargarria izatea; grafiko eta animazio onak izatea; edota balio



zintzoak eta egokiak islatzea. Hala, merkatua aztertzen ibili eta Alexandre Dumasen pertsonaia klasikoetan oinarritzen den joko hau aurkitu zuten. Suediarrak dira joko honen egileak, eta une honetan 19 hizkuntzatan kaleratu berri da.

Istoria Parisen gertatzen da, 1628. urtean. Xabier Kondeak eta bere laguntzaile Orsini maltzurak, D'Artagnan eta hiru mosketarietatik bi bahitzen dituzte, Aramis eta Athos. Gaztelu sekretu batean ezkutatuko ditu eta bere asmoa Frantziako koroa menderatzea da. Hirugarren mosketariak, Porthos-ek, hauen bila aritu beharko du gaztelutik gaztelura, baso zabartsuak, munstroak, ziega ilunak zein ezusteko beste ha maika oztopo gaindituz. Bidean urrezko giltzak jasotzen joan beharko du, ezkutuko gaztelua aurkitu arte. "Jokoa bost jokalekutan banatzen da eta bakoitzak hainbat maila ditu. Eszenatoki bakoitzaren hasieran, sarrera gisa, marrazki bizidunen film labur bat dago." Ez du aspertzeko betarik ematen, beraz.

Alexandre Dumas-en nobela klasikoan inspiraturiko lehen bideojokoa da honakoa. Korapiloa baino, pertsonaia erabiltzen ditu. "Liburu batean oinarrituta egoteak, agian liburua irakurtzera ere zirikatu lezake, beraz, kulturalki ere interesgarria zela ikusi genuen."

Informazio gehiago nahi izanez gero, jo www.elhuyar.org/mosketariak web orrira, eta bertan demoa deskargatzeko aukera izango duzu.

30+10 Mintegia Elgoibarko IMHn

30+10 Mintegia: Makina Erremintaren arloko enpresen erantzukizun soziala, euskara baliabideak eta praktika onak mintegia antolatu du Elgoibarko IMH Institutuak urriaren 26rako. Helburua da sektorearen inguruan dauden enpresei euskaraz garatutako zerbitzuak, makinak eta tresnak ezagutaraztea.

2003an IMHk Ahize-AEK aholkularitzarekin batera abiatu zuen euskararen erabilera sustatzeko Goazen egitasmoa. Beronen ildo estrategikoetako bat euskararen inguruan hezkuntza eta enpresen arteko zubi lana egitea da.

Mintegia goizez egingo da eta lau atal izango ditu: 1) erakudeen sarrera; 2) metodologia, esperientziak eta praktika onak; 3) enpresako zerbitzuak eta produktuak ezagutaraztea; eta 4) sektorean urteetan euskararen presentziaz arduratu diren enpresei errekonozimendua ematea.

Informazio gehiagorako: 943 744 132 eta goazen@imh.es

Hik Hasik Migel Altzo saria jaso du

Begiradaren Heziketa. Zinema aztertzen DVDak jatorrizko bideo onenaren Migel Altzo saria jaso du

Ilargiaren sekretua filman oinarrituz, zinemaren mundua ezagutzeko eta aztertzeko aukera ematen duen proposamen didaktikoa da *Begiradaren Heziketa*. Zinema aztertzen.

Irudiak eta horien azpian ezkutatzen dena lantzeko material pedagogikoa da. Film bat ikusi aurretik zer egin, ikusi bitartean nola jokatu eta ikusi ondoren nola landu jakiteko hainbat jarduera proposatzen ditu.

Horrekin guztiarekin, irakasleak, ikasleak eta edozein herritar irudiaren mundura gerturatzea, barrutik ezagutzea eta ikuspegi kritikoa lantzea da xedea.

Osagaiak

1. DVDa:

a) *Ilargiaren sekretua* filma osorik (sekuentziatan banatuta).

b) Fimari buruzko estrak.



c) *Begiradaren beziketa* proposamen didaktikoa: prozesua, gidoia, irudia, soinua, efektuak, diseinua, mezuak eta balioak eta zinemaren bilakaera.

2. Liburuxka

3. www.hikhasi.com



Dena prest Reggio Emiliara abiatzeko!

Urriaren 11 iristear da eta konaturatu baino lehenago izango gara Italian. Talde polita elkartu gara Reggio Emiliako haur eskoletako esperientzia ezagutzeko: 153 lagun guztira. Horietatik 69 Euskal Herrikoak, 50 Kataluniakoak, 24 Valentziakoak, 8 Galiziakoak eta 2 Kantabriakoak.


Reggio Emilian lau egun igaroko ditugu. Talde handian nahiz talde txikitik arituko gara, goiz eta arratsalde, eta eskoletara bisitak ere egingo ditugu.

Ikastolen Elkarteak ikasturte hasiera baliatu du SAIOKA proiektuaren sortzaileak, egileak eta kudeatzaileak omentzeko. Iker taldeak 1974. urtean hasita 1982 arte 24 testu liburu, 2 gidaliburu eta 2 disko sortu zituen, eta ekarpen garrantzitsua izan zen euskal irakaskuntzarentzat.

Besteak beste, planteamedu pedagogiko berritzaileentan oinarritu zirelako, Euskal Herri osoa hartzen zutelako aintzat, euskara batuaren aldeko apustua egin zutelako, itzulpen lanak alde batera utzi eta sortu egin zutelako eta irakasleen prestakuntza ere landu zutelako.




argitalpenak



Txomin udazkenean

Liesbet Slegers
IBAIZABAL

Udazkena iritsi da, hotz egiten du eta zuhaitzetatik hosto hori, gorri eta marroiak erortzen dira, zapaltzean kris-kras egiten dutenak. Gustura egiten dio harrera Txominek udazkenari, hosto, barraskilo eta abarrekin jostatuz. Txikientzako liburu berezi hau, Txominen hainbat bizipen deskribatzen dituzten liburuen bildumaren parte da. •



Basotxo eta zuhaitzak

A. Ibarra Basañez
EREIN

Basotxo zuhaitz magikoa da, edo-zertan bihurtzen dena; animalia, gauza, pertsona... Liburuan hainbat zuhaitz mota aurkezten dizkigu pertsonaiak, eta zuhaitz bakoitzak egoera didaktiko bater hurbiltzen gaitu. Basotxorekin, gaztaina saltzailea, gabonetako pinua edo sagardoa ezagutuko ditugu. •



Amonak nobioa du, eta zer?

Leire Bilbao
ELKAR


Ama oporretara joan da eta Peru amonaren etxean utziko du itzuli bitartean. Hasieran pentsatzen zuena baino interesgarriagoa suertatuko zaio Peruri amonarenean egonaldia. Laranja koloreko bi arrain txiki ezagutuko ditu han; eta sekretu txiki bat ere deskubrituko du: amonak nobioa duela! •



BAT soziolinguistika aldizkaria 59. zenbakia

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA


Hizkuntzen egoera, normalkuntza prozesua eta glotopolitikari buruzko ideiak jorratzen ditu aldizkari honek, eta ale honetan, "Euskararen egoera Ipar Euskal Herrian" gaiaren inguruan, aditu askoren gogoetak biltzen ditu: beste ak beste, Iparraldean euskarak komunikabideetan eta adierazpen kulturaletan duen presentziaren azterketa. •



Euskaldunen kolore mundua atsotitzetan

Txema Preciado
GAIK

Damaso Intzak, Zabalak, Azkuek eta batez ere Gotzon Garatek atsotitzen inguruan bildutako material aberatsa ordenatu eta sailkatzen da, euskaldunen kolore munduaren interpretazioari ekiteko. Nagusi diren gorria, beltza eta zuria (urdira, nabarra eta berdearekin batera) ikertzen dira bereziki. •



Bus bat Alabaman

Jean-Francois Sauré
SAURE

Amerikako Estatu Batuetan garai batean beltzek jasan izandako segregazioa eta eskubideen ukazioa nolako izan zen esplikatzeko digu komiki honek. Istorioan zehar borroka honetan ekimen handia izan zuen pertsona bat ezagutarazten digu idazleak; Martin Luther King, hain zuzen ere. •

... goza nazazu gehiago



Erramun Osa

Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioko
Hizkuntza arduraduna

Denon zeregina

Gauzak horrela, zeregin lezake eskolak gure hizkuntza indarberritzeko ahalginean? Besteren artean, gela barruko jarduna hizkuntzen erabilera areagotze-arekin uztartu beharko genuke, lehenbizi. Izan ere, hizkuntzak, haiek guztiak gauzak egiteko, askotariko jarduerak burutzeko baliatzen ditugun neurrian eskuratzen ditugu. Halaber, gela barruan zein kanpoan, haur eta gazteen jarreretan eta motibazioan eragitea, euskaraz jardun ahalizateko harreman-sareak eraikitzea eta sustatzea, erabilera-eremuak irabaztea eta abar jorra ditzakegun lan-ildoak dira.

Honakoak, baina, itsumustuan ezin gara litezke. Hargatik, denboran garatze-ko eta eramateko moduko estrategia zehaztea komeni da, itolarria eragingo ez duena, lan iraunkor zein sistematizatua ahalbideetako dituen eraikiz bidenabar. Inguruabar horretan, eskolan hizkuntzekiko egon litezkeen esku-hartze eremuak (ikus. koadroa) kontuan izanik, bakoitzean eragile d(ir)ena(k), bilaka lite(z)keena(k) ongi identifikatu zein le-

hentasanak eta kontuan jarduerak ederto zehaztu beharko genituzke.

Esku-hartze eremuei dagokienez, bi eremu bereiz ditzakegu nagusiki; batetik, eremu pedagogikoa, ekintza pedagogikoarekin eta gela barruko elkarreragin didaktikoarekin erlazioatutako hizkuntzaren alderdiak biltzen dituena; eta bestetik, eremu instituzionala, ikastetxearen kudeaketa eta antolaketarekin ez ezik gelaz kanpoko zein inguruneko harremanarekin ere erlazioatutako hizkuntzaren alderdiak biltzen dituena.

Sail honek, iaz zein aurtan, lehenago aitatutako esku-hartze eremuak kontuan, abian jar litezkeen estrategiak zein esperientziak aurkezteko saiakera egingen du. Gure xedea, beraz, ez da era isolatuan jarduerak eta esperientziak aurkeztea soil-soilik, plangintza eragingarri eta oso batean bateragarri eta aldi berean, eragile desberdinak tarteko direla, egin ditzakegun urratsez zenbait orientabide eskaintzea baizik. Ea hala den!

Euskararen indarberritzea askotariko pertsona, elkarte zein bestelakoenez kezka iturri izan ohi da. Alabaina, ardura hori lagun hurkoaren esku uzteko jarrera ere egon ohi da bazterretan. Hainbatean, irakasleen zeregina euskara ondo erakustea dela eta haur eta gazteen artean erabilera sustatzea, berriz, beste norbaitzuen zenbat aldiz entzun dugu gure ikastetxeetan, klaustro zein bestelakoetan? Euskara indarberritzeko askotariko jarduerak aurkeztean ez ote dugu sumatzen gure inguruan garrantzi urriko gai bati buruz ari garela eta ahalik lasterren bestelako gaietara, ustez garrantzi handiagoetara, igarotzeko gogoia, desioa, sarritan?

Fishmanek zioenez, "Ikaskuntzak, ikasbide eta ikastetxeak ez du bere lanaren jarraipen bermerik segurtatzen. Eskolatik bakarrik ezin espero liteke konponbiderik. Etxe-auzo-bizigiro multzo korapilatsu horren falta du eskolak. Hizkuntza ezin du eskolak bere kabuz eta bere eragin hutsez biziberritu". Baina, hala izanagatik ere, gure hizkuntzaren indarberritze ahaleginean, dezakegunetik, denontzako lekua ez ezik guztion beharra dagoela azpimarratzea ere erabakigarria da.

Eremu pedagogikoa			Eremu instituzionala		
Kurrikularra		Ez kurrikularra	Eskoletako antolaketa	Harremanak	
Kudeaketa pedagogikoa	Interakzio didaktikoa			Familia	Gizartea orokorrean
1.-Kurrikulu proiektua: 1.1.Hizkuntz arloko <i>kurrikulu</i> integratua. 1.2. Beste arloetako kurrikuluak: hizkuntzen tratua instrumentala, globalizazioa eta abar. 2.-Egitasmo osagarriak: 2.1. Euskara eta euskal kultura. 2.2. Zehar lerroak. 3. Irakasleen prestakuntza planak: Hizkuntz hobekuntza, metodologia eta abar..	1.-Harremanak: 1.1. Arlo bakoitzeko harreman hizkuntza. 1.2. Irakaslearen hizkuntz eredu eta hizkuntzekiko jarrera. 1.3. Irakasle/ikasle arteko hizkuntz erabilera eta kalitatea. 1.4. Ikasleen arteko hizkuntz erabilera eta kalitatea. 2.-Baliabideak: 2.1. Gelaren giroa: horma-irudiak, kartelak, etab. 2.2. Informazio iturrien eta bestelako baliabideen hizkuntza.	1.-Jolasaldiak. 2.-Jantokia, garraioa, zerbitzuak. 3.-Ikastorduz-kanpoko ekintzak. 4.-Irakasleen arteko hizkuntz erabilera eta kalitatea. 5.-Gainontzeko giza baliabideen hizkuntza. 6.-Ikasleen arteko hizkuntz erabilera eta kalitatea. <i>Ostadar ikerketa soziolinguistikoa</i>	1.-Gobernu eta funtzionamendu-organak. 2.-Ekonomia, administrazioa eta dokumentazioa. 3.-Pertsonalaren hizkuntz profila. 4.-Espazioen banaketa eta tratua. 5.-Ikastetxeko errotulazio eta informazio guneak (errotulazioa, kartelak, iragarpen taulak, etab.).	1.-Eskola eta gurasoen arteko harremanak, irakaslea, eskola, etab. 2.-Familia barruko hizkuntz erabilera eta kalitatea. 3.-Administrazioarekiko harremanak. 4.-Bestelako harremanak.	

atzeko atetik



Josune BEREZIARTU

ESKALATZAILEA

“Mendira, mendira, mendira!!!”, errepikatzen genion txikitan ikastolan gure maisuari. Ametsezko leiho ireki bat bezala ikusten genuen mendira joateko posibilitate hura. Mendia ihesa zen, gure ikastolako gelatik ihesaldi tinko bat. Inkotzienteki ikastolako eguneroko errutina gainditu nahiaren leiho irekia. Gelako ikasle guztiak ados jartzen ginen, eta gure asmoa maisua presionatzea zen, gehienetan ostiral arratsaldeetan. Batzuetan, oso gutxitan egia esanda, gure asmo haiek errealitate bihurtzen ziren. Orduan, ikasle guztiok, zezen bat plazartzuten den bezala, maldan gora abiatzen ginen mendiko bidea hartuz. Gertakizun haiek, lagunekin solasean, ikaragarriak ziren.

Mendira! Mendira! Mendira!...

Goizeko hamarretan Tolosaldeko Alkiza herri txikira pozez abiatzear nago. Memento nahiko zaila bizitzen ari diren eskola txiki horietako batera, hain zuzen.

Esan bezala, ikasle izan nintzen urte askotan, eta oraingoan badirudi “maisua” lanak egiteko asmotan noala. Nirekin eta “irakasle” jarduteko intentzioarekin, Rikar dator baita ere.

-Kaixo guztioi, Josune ata Rikar gara. Zer moduz zaudete?

- ONGIIIIII!!!! -erantzuten digute irrifartsu.

Beraien artean Manex gure iloba dago. 5 eta 12 urte bitarteko 13 ikasle aurrez aurre dauzkagu begirik kendu gabe.

-ETA ZUEK? -galdetzen digute.

-Oso ongi baita ere. Zuen ondoan, nola ez, beti ongi. Beno, gaur goizean zuen maisuak izango gaituzue. Ongi iruditzen al zaizue?

-BAI HORIXEEEEEE!!!! -erantzuten digute.

Imajinazioa eta interesa sortu eta eragin nahian, bi motxilatzarretan geneukan guztia gelako zoruari utzi dugu: mendiko eta eskaladako tramankulu eta soka guztiak.

Maisu asko eduki izan ditut, ez bakarrik ikastolan edo geroko ikaskuntzetan. Guztiengandik beti gauza positiboak aterra izan ditut. Beraz, errespetu handiz es-

pero dut Alkizako mutil kaxkar hauei benetako solasaldi polita eskaintzea.

Badirudi “MENDIRA, MENDIRA, MENDIRA...” hitz miresgarri haiek aldarrikatu dizkietela nolabait gure 13 lagun kaxkar hauek beren irakasleei. Oraingoan Rikar eta biok, geure kondairekin, sokekin, katu-oinekin, mosketoiekin, arnesarekin, magnesio poltsekin... “mendiaren” ikuspegi pertsonala hurbildu behar diegu.

Aho zabalik, begiak finko, mugiezin daude denak. Gure kondaira barne-barnean sartzen ari zaiela dirudi. Ongi ba!

Beraien gelako leihoa oraingoan zabal-zabalik dago. Askatzen dut soka, korapilatzen dut gelako puntu finko batera eta leihotik kanpora botatzen dut. Poz handiz hartzen dute ikusten ari direna. Oraindik ez diet esan zer egin behar dugun, baina ederki ikasi dute ikaslana eta ziur dakite zer egingo duten gero. Zoratuta, ezin dute itxaron beren txanda ailegatu arte!!!


Motel, motel, leihotik kanpo “rapel” baten bitartez jaitziz, kontatu diegun gure mendiko esperientzietatik “egungo” errealitatera bueltatzeko bidea hartzen dute denek.

Nik ere ikasle bihurtu behar dut berriro, eskaladan edo bizitzan ez baitago beste aukerarik aurrera egiteko.



Gelako denboraren % 67 inguru igarotzen omen du irakasleak hizketan, eta gelditzen den denbora gela bakoitzeko 20-25 ikasleren artean banatu behar da.

Iturria: Edwards eta Mercer, 1988, Ereinkaria.



Lagun arteko hizkerarekin jolasean

ikastaroak!

ikastaroak!

Ezaugarriak

Norentzat

13-16 urteko gazteentzat, D ereduan ikasten dabilzanentzat.

Zertarako

Gazteek euskarazko lagunarteko hizkeraren trikimailuak bereganatzeko.

Nola

Hizkuntzarekin jolastuz eta lagun-ikaskideekin dibertituz.

Ikastaroak jasotzeko lekua

Eskatzaileek aukeratzen dutena: beren ikastetxea, beren elkartea...

Eskaintza zehatza

10 ORDUKO PROGRAMA

- 2 orduko 5 saio gazteekin.
- Gaiak: haserretzea, adarra jotzea eta ligatzea.

8 ORDUKO PROGRAMA

- 2 orduko 3 saio gazteekin eta 2 orduko saio bat irakasleekin.
- Gaiak: haserretzea, adarra jotzea eta ligatzea.

2 ORDUKO PROGRAMA

- 2 orduko saio bat gazteekin.
- Gaiak: ligatzea edo haserretzea eta adarra jotzea.


OHARRAK

Irakasleek gida didaktikoa jasotzen dute, saioen jarraipena egiteko. Ikasleek, berriz, *Hitzontzia* izeneko liburuxka bana.



Pirritx eta Porrotx

Mari Motots



www.katxiporreta.com

Badira gure herriko parkean emakume bat eta haren alaba, Mari Motots. Hantxe bizi dira, jolaslekuaren zaindari. Guk emandakoetatik jaten dute eta janzten dira. Parkeko zakarrontzi handia da haien etxea. Gaur, Pirritx eta Porrotx haiengana doaz, eta parkearen sekretuak ezagutuko dituzte. Zatoz zu ere pailazoekin parkera!

Pirritx eta Porrotxen abentura berriak zure herriko antzokian, kiroldegian, plazan, eskolan...
Eskaintza bereziak ikastetxeentzat!!

INFORMAZIOA ETA KONTRATAZIOAK Tel.: 629 349 715 • 118 Postakutxa • 20160 LASARTE-ORIA • www.katxiporreta.com